

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 24a / 615. zenbakia

Arrasateko Txistulariak

Txistuaren duintasunaren, nortasunaren eta biziraupenaren alde lanean diharduen taldea

FANDANGILLOA

1. Txistua (Fa) *mf* *f*

2. Txistua (Fa) *mf*

Silbotea (Sib) *f*

Tronpetak (Sib)


Tronpetak (Do) *mf* *f*

ORAIN ETA HEMEN: UDAL TASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK/8 • KIROLA: JONATHAN PEREZ-EK, URREA/10

ALEXAZKARATE

GREMIOEN GIDA/24

1. euskal selekzioaren cd-rom jokoa



902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!




Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean, 72 orduan bidaltze gasturik gabe



Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

KALEINKESTA/ Sagardotegixetara jueten zara? Herrixen bat zabaldu ezkerro, juengo zitzake?



EKI URTZELAI
Ikaslie

Gutxitan. Baiñe Mondraguen bat jarri ezkerro, juengo nitzake. Aramaixokuen ez naz egon, baiñe, neure ustez, Mondraguen sagardotegixe jarri ezkerro, jentie juengo litzake.



JOSE MIGUEL BARTOLOME
Ikaslie

Neu ahal dotenien jueten naz. Gutxienez, urtien behin edo birritan. Mondraguekue apur bat klasikue izetie gureko neuke, Astigarragakuen estilokue-edo. Politte izengo litzake.



MARIA ELENA ARRIETA
Langillie

Neu jueten naz, eta Mondraguekora be juengo nitzake, baiñe susmue dauket mondraguetarrek kanpora juetie gurago dauela. Aramaixokue ez dago txarto, baiñe girue falta da.



GOIZEDER CABALLERO
Ikaslie

Juen izen naz sagardotegixetara, baiñe beti aittakin eta amakin. Balitke Mondraguekora juetie. Sagardue gustetan jat, eta, jaten emuten badaue, lagunekin jueteko aproposa da.



ELIXABET ETXANIZ
Langillie

Bai. Urrunago juen barik, kuadrilliekin juengo nitzake Mondragueko sagardotegira. Urtien behin Hernani aldera jueteko ohiturie daukogu, eta asko gustetan jat hori giruori.



IDOIA BARANDIARAN
Langillie

Ez naz oso zalie, arazo bat dauketelako: sagardotegixetako girue asko gustetan jat, baiñe sagardue bera ez jat gustetan. Lagun artien egotiarren iguel juengo nitzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GAZTELANIAZKO BERTSIOA Irakurle batek jakinarazi digunez, Olentzeroren filma Arrasateko Alai zinemara ekarri dute. Film horrek bertso bi ditu: bata, euskarazkoa, *Olentzero*; eta bestea, gaztelaniazkoa, *Angé: la leyenda de los Pirineos*. Irakurle hori oso haserre dago Arrasaten gaztelaniazko bertsoa bakarrik eman dutelako. Umeek euskaraz gustura ikusiko zutela dio irakurle horrek.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 10

KULTURA / 14

Garzón eskaera

Arrasateko Udalak ere jaso du Garzón epailea EAEko udalei egiten ari zaien eskaera.

Kencik, bolada onari eutsi

Arrasateko saskibaloitza taldea bolada onari eusten dio. Ursulinas taldeari 95-82 irabazi zion.

Kañeria 13k, diskoa kalean

Garagartzako Kañeria 13 musika taldeak *Miles de historias* izeneko diskoa kaleratu berri du.

ASTEKODATUA

93

EKITALDI EGIN DITU TXISTULARI TALDEAK

Batez beste, laurogeita hamahiru ekitaldi egiten ditu urtean Arrasateko Txistulariak taldeak. Besteak beste, ezkontzak, omenaldiak, kalejirak, kontzertuak, dantza-saioak, eta abar.

BESTEKEESANA

“ Bizitzaren kasualitate multzo bat dela medio 17 urterekin Putz aldizkarian idazten hasi nintzen, eta

Arrasate Press-en zutabegile ere ibili nintzen (...). Harremanetan jarri nintzen Putz-eko Diego Martiartu idazlearekin, eta hark aipatu zidan liburua kaleratzeko aukera. Niri ilusioa egin zidan eta apurka libururako propio egindako ipuinak idazten hasi nintzen, harik eta azkenean liburua osatu dugun arte (...). Oso gustura irakurri zidan dut Hego Amerikako zenbait ipuingile, Monterroso, Cortazar eta beste. Ipuina formatu erakargarria zait nahi dudana adierazi ahal izateko (...). Xabier Montoia, Pako Aristi, Diego Martiartu eta Joseba Sarrionandia ere gustuko ditut, besteak beste”

ENEKO BARBERENA
‘EUSKALDUNON EGUNKARIA’/03-01-09

HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



Izan gaitezen gai, erabiltzeko!!

Euskaldunon eskubideak eta euskara bera berreskuratzeko pauso garrantzitsua izan zen herritarren zerbitzura egon behar garen administrarioi ‘euskal gaitasuna’ eskatzea. Herritarrok oro har EGA tituluz ematen dugu erakustera gaitasun hori. Jaurlearitzak titulu horrek euskara irakasle izateko beharrak asetzen dituela erabaki du. Baina honen gainetik 4. hizkuntza eskakizuna dago, administrazio-ko zenbait goi teknikariek eskuratu beharra daukaguna.

Urteak daramatzat euskaraz lanean. Hala ere, ez omen daukat gaitasun ofizialik nire lana euskaraz burutzeko, bai ordea, euskara irakasle izateko. Noizbait, lerro haue- tan erabili izan dudana euskara kritikatu zait, komunikabide baten argitaratzeko jasoe- gia delakoan. Nire lana tekniko- a izateaz gain, batez ere herritarrei zuzendua bada, zein da landu beharreko maila? Eta

hau landu ahal izateko izan beharreko maila?

Izan, izana bilakatzeko arriskuz, behin izatea besterik ez baita eskatzen. Horregatik, ni, hizkuntza jardunean ikasten eta aberasten den ustekoa naiz. Hori bai, horretarako hizkuntza horretan jardun behar. Ondorioz... eskatu beharrekoa, gaitasunaz gain, erabilera da. Zertarako eskatu perfekzioaren hurrena den gaitasuna gero egunerokotasunean ez bada hizkuntza erabili behar?

Erabiltzeko, lehenik ahalmena behar dela gaitasuna egiaztatzeak dakar, baina horretan geratuz gero gaitasun hori zimelduaz joango da. Zimeltzetik ihartzera, negu gogor bat besterik ez. Nola berma genezake gaitasuna eta batez ere erabilera denboran zehar?

Ez naiz titulua lortuko ez dudana beldur; euskararentzat, tituluak lortzeak ezertarako ez ote duen balio beldur naiz. Izan gaitezen gai, erabiltzeko!

“Euskara zimeltzetik ihartzera, negu gogor bat besterik ez. Nola berma genezake gaitasuna eta erabilera?”

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlearitzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 24
Irizar, Erquin 11 943 79 12 39

ZAPATUA, 25
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74

DOMEKA, 26
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

ASTELEHENA, 27
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

MARTITZENA, 28
Español, Araba etorb. 943 79 18 65

EGUAZTENA, 29
Azkoaga, Ferrerías 5. 943 79 15 15

EGUENA, 30
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualarioroa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

MEATZERREKAKO JAIAK
Gaur, egubakoitza, San Baleixo jaiak hasiko dira Meatzerrekan: auzo afaria eta dantzaldia izango dituzte. Bihar, zapatua, futbito partidua, ume eta gazteendako jolasak, Mus Txapelketa eta erromeria. Eta domekan, jaiak bukatzeko, meza, txistulariak eta dantzariak.

SAN FELIPE APOSTOL
Domekan, San Felipe Apostoleko bazkideek batzar orokorra egingo dute, Amaian, 12:15ean. Aurretik, meza izango dute, San Juan Bautista elizan, 11:00etan.

SAHARAREN ALDE
Ongizate Sailak eta hainbat GKEk Saharako errefuxiatuen aldeko kanpaina jarri dute abian. Urtarrilaren 20tik 31ra arte janaria batuko dute, eta kontu bat ere zabaldu dute.

AHT-REN AURKAKO EKITALDIA
Gaur, egubakoitza, Deba-goieneko AHT Gelditu! Elkarlanak AHTren aurkako ekitaldi kulturala antolatu du, Herriko Plazan, 19:00etan. Trikitilariak eta bertsolariak izango dira. Bestalde, otsailaren 1ean Tolosan izango den manifestaziorako autobusa antolatu dute.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea otsailaren 7ra arte dago zabalik. AEDk Pablo Urangan duen egoitzara eraman behar dira lanak.

SENDABELARREN GAINEAN
Sendabelarren gaineko taldea eratu dute. Interesa duen edonork AEDra jo dezala.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erquin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erquin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Txotxueneko urbanizazioa, erabakiaren zain

Txotxueneko lanek eragindako kalteak konpontzeko Arrasateko Udalak, Brues enpresak eta bizilagunek eurek akordioa egin ondoren, urbanizazioa nork egin beharko zuen galderak kezka ugari sortu zituen Txotxueneko bizilagunen eta lantegi txikieta-ko jabeen artean.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Egaratu”

1. Hegan hasi.
— Anka ondotik egaratu jatan oillagorra ta ezin izan notsan tiratu.

2. Txoriak habitik hegan hasi.
— Txori-apixia nekixen zazpi txorikumakin baiña akordau orduko egaratu zien.



GORKA HORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 15 **-4 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 21 **16 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **24,3 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	11 °C	-4 °C	0,8 l/m²
Eguena, 16	8 °C	1 °C	0,2 l/m²
Egubakoitza, 17	12 °C	4 °C	5,3 l/m²
Zapatua, 18	14 °C	6 °C	13,9 l/m²
Domeka, 19	12 °C	8 °C	0,8 l/m²
Astelehena, 20	12 °C	2 °C	0,2 l/m²
Martitzena, 21	16 °C	10 °C	3,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Arantza Ozaetarekin irakurzaletasunaz

Arantza Ozaeta arrasatearra izan da astean gurekin irakurzaletasunaz berba egiten, hark liburuak gomendatzen ditu eta Radio Euskadin. Egiten dituen gomendioez gain, euskal literatura ere hizpide izan dugu Arantzarekin Arrasate Irratian.

Bestalde, praka bakeroek 150 urte bete dituztela eta, Bergarako Tavex Algodonera enpresara jo dugu. Mundu osoan saltzen dute bakeroak egiteko oihala, urtean 30 mila metro oihal, hain zuzen ere.



Ibon Antero Ekuadorrera doa

Mundukide Fundazioaren ekimenez, Ibon Antero Ekuadorrera bidean da. Ibonek Ikerlanen egin du lan orain arte, eta Ekuadorrera joatea zergatik erabaki duen galdetu diogu. Era berean, Amerikako herrialde hartan zein programa garatuko duen azalduko digu. Astelehen goizean eskainiko dizuegu solasaldi hori. Martitzenean, berriz, Txuri Urdin Peñaren gainean egingo dizuegu berba, egun bat lehenago aurkeztuko dute eta.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efemerideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tarteak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 **Txortxorrien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 **Planing Prest:** Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Arantza Ozaeta, Eusebio Iñarra eta Sergio Hernando.

DOMEKA
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

MCC, Europako onenen artean

Fortune Ameriketako Estatu Batuetako aldizkari ekonomiko ospetsuak MCC aukeratu du Europan dauden lanerako hamar konpainia onenen artean. Hautatze prozesuan Europa osoko 60 enpresak hartu zuten parte. Enpresa horietatik, hamabi aukeratu zituzten lehen aukeraketan, eta azken fasean, hamar onenen artean hautatu zuten Arrasateko konpainia.

MCCz gainera, besteak beste, Ferrari automobil fabrika-tzailea edo Lafarge munduko lehen zementu lantegia daude.

Ebakuntzak egiteko teknika berria

Joan den eguenean (hilak 16), teknika berri bat erabiliz ebakuntzak egin zituzten eskualde ospitalean.

Txizari ezin etsi dioten lau emakumeri egin zieten ebakuntza, eta ebakuntza egiteko teknika berria erabili zuten. Orain arte ere egin dituzte era horretako ebakuntzak, baina anestesia orokorra ematen zen. Eguenean, berriz, gerritik beherako anestesia eman zieten, eta teknika berria erabiliz egin zieten ebakuntza. Horrela, gaixoak azkarrago suspertzen dira. Ebakuntzak egin eta gero, medikuak pozik azaldu ziren, ebakuntzak oso ondo irten ziren-eta. Hemen-dik aurrera, teknika hori erabiliko dute, eta urtean barrena horrelako 20 ebakuntza inguru egingo dituzte.

Besaide Mendi Elkarteak, egoera onean

Joan den eguenean (hilak 16), Besaide Mendi Elkarteak urteroko batzar orokorra egin zuen. Ekonomikoki elkarteak egoera onean dago eta kirol arloan bazkide eta federatu kopuruak ez du behera egiten. Aurten, Besaide Mendi Elkarteak joan den urteko ildo bera jarraituko du. Mendi irteerak izango dira, ikastaroek ere ez dute kalerik egingo eta ikus-entzunezko emanaldiak ere izango dira.



Hegoamerikarrak Arrasaten bisitari

Ertamerikako eta Hego Amerikako hezkuntza arloko hainbat aditu Euskal Herrian dira egunotan. Hemengo profesionalekin batera jardunaldiak egiten dabilta, eta eguaztenean, hilaren 22an, Arrasate bisitatzen etorri ziren. Sei egun egingo dituzte gure artean hezkuntza adituok.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Iragan eta orain industrialak

Dagoeneko Arrasateko Erakusketa Industrialak bidea egin du, eta herritarren eta kanpotarren artean harrera ona izan duela erakutsi du. Erakusketa arduradunek jakinarazi dutenez, Zerrajerako erlojuaren eraikinetik -erakusketatik- 2.250 bisitari igaro dira; gehienak, arrasatearrak.

Union Cerrajera bota zutenean, tristura ederra

hartu genuen batzuek. Onerako eta txarrerako oso herri industrialak izan da Arrasate, eta testuinguru horretan halako fabrika puskek izugarritzko ondarea dira.

Argi dago Arrasateko industriek lanpostu asko sortu dituztela, baina horrez gain, herriko inguruei kalte ekologiko handia ere eragin diete. Deba ibaia ikusi

besterik ez dago.

Dagoeneko ezin da iraganean egindako kalte guztia konpondu. Hala ere, industriek neurri bereziak hartu beharko lituzkete, eta horretarako gailu guztiak jarri.

Erakusketa Industrialera bueltatuz, azken finean, industria herri honen ondarea denez, txalogarria deritzot halako ekimenari eustea eta, agindu duten bezala, erakusketari are eta berrikuntza gehiago egitea.

ASTEKOIRUDIA



AITOR URIZAR

GAZTEEN ETA NAGUSIEN GOZAMENERAKO, HOLIDAY ZIRKUA ARRASATERA IRITSI DA

Ikus-entzunezko garaian bizi garela diote, eta garrantzia ematen diogu azken teknologien bidez egiten diren ikuskizunei. Horiek ikusten ditugu, eta zur eta lur geratzen gara. Eta helburu berberekin etorri da, beste behin, Holiday zirkua gurea. Behin baino gehiagotan entzun izan dugu zir-

kua aspaldiko kontua dela eta ez duela etorkizunik. Bada, Holiday zirkua 17 urte egingo ditu aurtentzen, eta oraindik ere jendea harrituta uzteko abilezia daukate: urrutiko animaliak, pailazoak, orekariak, fakirrak, gimnastak... Bi orduko ikuskizuna, teknologia aurreratuenari aurre egiten. / X.U.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

"PAL"

Burdindegia
Brikolajea
Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

KULTURA/ Arrasateko Txistulariak taldea

Euskal musika tresna zaharrea duintasuna eta biziraupena ber

UBANE MADERA

Belaunaldiz belaunaldi transmitituz joan diren euskal ohituren artean, txistua jotzeak garrantzi handia izan du beti. Euskal musika tresna zaharrena dela ere badiote askok. Arrasaten piztuta jarraitzen du ohitura horrek, bizi-bizi; bereziki, horretan ahalegindu direlako.

1999an, Arrasateko Txistulariak taldea sortu zen. Lehenagotik ere bazeuden txistulariak Arrasaten, baina orduko egoerak talde bateratua sortzeko beharra eragin zuen. Hala kontatu digu Iñaki Barrenak, taldeko fundatzaileetako batek. Haren esanetan, herriko bi dantza taldeek -Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz- "nork bere txistulari taldea zuen, eta txistulariok elkarren artean harreman txikia genuen".

Bi dantza taldeetako txistulariek kalejirak bakarrik egiten zituzten elkarrekin. Hau da, ez zuten entsegurik batera egiten, eta talde bakoitzak berea ikasten zuen. Horrek txistularien erreperitorioa mugatu egin zuen; eta beti betikoa jotzean, jendea nekatu egin zen, eta, poliki-poliki, oro har, txistuarekiko zaletasunak atzerapausoa eman zuen.

Horren ildotik, herriko txistulariek hausnarketa egin zuten, eta talde bateratua sortzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Arrasateko Txistulariak taldea.

Entsegu bateratuak egiten hasi ziren talde berriko txistulariak, erreperitorio komuna eta zabala lortzeko. Gauza berriak ikasteak txistularien zaletasuna indartu zuen; horrekin batera, txistulariei ikasteko aukera ere eman zien. Izan ere, besteak beste, talde horretan tituludun txistulari bat dago, dakiena gainerakoei erakusteko.

HELBURU OROKORRAK

Laugarren urtea egingo du aurten Arrasateko Txistulariak taldeak. Irabazi asmo bariko kultura taldea da: "Arrasaten txistuak eta txistulariek galdu duten tokia, duintasuna, nortasuna eta zaletasuna berreskuratu gura ditugu. Azken baten, *herrigintza* egiten ari gara, euskal musika tresna zaharrena gal ez dadin lanean ari gara-eta. Gure kulturari eta gure ohiturei eusteko egiten dugun ahalegin hori ere *herrigintza* da, gure iritziz. Eta, horren harira, guk konpromisoa dugu gure herriarekin".

Helburu hori oinarri hartuta, saioak hobetu eta berri gura dituzte txistulariek, herriko beharrik ase gura dituzte, bizitza sozialetako parte izan. Eta, oro har, gizar-



Arrasateko Txistulariak taldeko zenbait kide, sanjuanetan; tartean, Kuki beteroa ere badago.

teari euskal aisialdia eskaintzea da taldearen asmoa.

UDALAREKIN HARREMANAK

Hortaz, herriko txistulariak direla esan dezakegu. Bai. Baina ez Udaleko txistulariak. Ez da gauza bera; eta hori argi utzi gura du Iñakik: "Kultura taldea gara. Eta Udalarekin daukagun harremana da gainerako kultura taldeek duten harreman bera. Gertatzen dena da gure jardueren berezitasuna dela-eta, Udalarekin dugun harremana estuagoa dela, gure ekintzetako bat korporazioari laguntzea delako".

TALDEAREN GAINEAN

Hamalau bat txistulari osatzen dute Arrasateko Txistulariak taldea. Taldearen harrobietako bat Musika Eskola da; askok han teknika ikasten dute eta gero, txistularien taldean ikasitakoa zelanbait aplikatzen ikasten... Izan ere, ez dago zertan Musika Eskolan ibili taldeko kide izateko.

Orain dela urtebete baino gutxiago Udalak utzitako lokalean elkartzen dira: eskualdeko ospitalearen atzeko aldean dauden bulegoetan. Arrasateko gaitariak,

txalapartariak, Margo Taldea eta Tronboi Taldea era han daude, nor bere gelan. Dena dela, txistulariek zera gura dute: herriko musika talde guztiak eraikin berean egotea.

Udalaren dirulaguntza ere jasotzen du taldeak: "Kultura elkarte gehienek dute Udaleko dirulaguntza, eta guk ere jasotzen dugu. Horrez gain, auzoetako ekintzen-

gatik ere kobratzen dugu zertxobait. Baina esan beharra dago taldeko inork ez dugula ezer kobratzen. Diru hori gorde egiten dugu, eta taldeko beharrik asetzeko erabiltzen dugu: adibidez, lokala egokitzeo, partiturak erosteko, musika tresna berriak erosteko... Hori bai, aurten, adibidez, Bartzelonan izan gara, Euskal Herriko Txistulari Elkarteko 75. urteurreneko

Herriko txistulariek hausnarketa egin zuten eta talde bateratua sortzea erabaki zuten

"Txistuak galdutako tokia, duintasuna eta nortasuna berreskuratu gura dugu"

Taldearen etorkizuna ziurtatuta dago datozen hamar urteotarako

ARRASATE PRESS

Txistularien urteko ekitaldiak zenbakitan

Egitarau oparoa eskaintzen dute Arrasateko Txistulariek urtero-urtero, bai herrian, baita herritik kanpo ere; askok uste baino dezente handiagoa. Izan ere, kasu askotan, txistua atzera samar geratzen da; hau da, ez du protagonismorik izaten. Horrela gertatzen da, adibidez, dantza saioetan: dantzariak dira ikusgarrienak, eta jende asko txistulariak han daudela konturatu ere ez da egiten.

Kontuak kontu, han izaten dira; eta, batez beste, urtero 100 bat ekitaldi egiten dituzte jende aurrean. Jakina, jende aurreko horiek egiteko, lehenago atzeko lan ugari

egin behar izaten dute; baina hori ezkutan geratu ohi da. Hara datuak zenbakitan:

2002ko ekitaldiak:

Ezkontzak/omenaldiak: 50
Kalejirak/dianak: 8
Kontzertuak: 9
Dantza saioak: 13
Udaleko korporazioarekin: 4
Bestelako saioak: 9
Guztira: 93

ekintza baten barruan. Bidaiaren zati bat taldeak ordaindu du".

EPE LABURRERAKO HELBURUAK

Epe laburrerako helburuak ere baditu taldeak: "Gure ekintzak apur bat aldatu gura ditugu: adibidez, kalejirak bakarrik egin barik, kontzertuak ere egin. Horra, adibidez, abenduaren 28an egingo dako kontzertua. Oñatiko Udala

aren ematu guran

Txistu Taldearekin jo genuen, eta Amaia Azpiazu sopranoak eta Manex Agirre bertsolariak parte hartu zuten, besteak beste. Olenzero egunean ere egin genuen saio berezia..."

Horrez gainera, "tradizionalki txistuak parte hartu izan duen ekintzetan berriro ere egon dadin gura dugu".

ETORKIZUNA BERMATUTA

Etorkizuna bermatuta dauka Arrasateko Txistulariak taldeak: "Gaur egun, jende asko dago taldean. 14 txistulari asko da. Hori bai, badugu arazo bat: atabalaria falta zaigu (danborra jotzen duena), premia izugarria dugu. Hortaz, norbaitek atabalarri izan gura badu, gugana etor dadila eta eskolak-eta emango dizkiogu".

İnakik ziurtatu digunez, taldearen etorkizuna datozen hamar urteotarako-edo dago bermatuta. "Baina hori belaunaldika doa. Nik 96an hartu nituen gaur egungo gazteak, eta orain dela bi urte hasi gara haien emaitzak ikusten. Orain, beste labealdi bat dator. Horietako batzuk badabilta dantza taldeetan; beste batzuk, ordea, Arrasate Musikalen bakarrik dabilta, baina laster, taldera etortzeko deitzeko asmoa dugu".

LAN GOGORRA

Baina etorkizuna bermatuta izan arren, zeregin gogorra bete behar dute txistulariek: "Txistulariaren bizitza gogorra da. Akaso, gogorragoa txistulariaren bikotekidearendako. Jaiak, adibidez, beste modu baten bizi ditugu. Barrutik

bizi ditugu. Oso gustuko dugu txistua jotzea, eta, orduan, jaietan lan egiteko sakrifizio hori ez da horren gogorra. Eta abantailak ere baditu: normalen, gure adineko gazteak bizi ez dituen jaiak bizi ditugu, bereziki, ohiturekin lotuta".

ARRASATEKO TXISTULARIEN BILAKAERA

Baina, lehen esan bezala, lehena ere bazegoen txistulari taldea Arrasaten. XX. mende erdialderako, adibidez, bazen. Banda Munizipala zen, eta Udalak beharrezkoa zuen guztietan jardun beharra izaten zuen, besteak beste. Talde hartako kideek hileko soldata izaten zuten. Soldataren barruan, besteak beste, txistua erakustea ere sartzen zen. Horren ondorioz, 1970-80ko hamarkadetan gazte ugari jotzen zuten txistua Arrasaten. 1967. urte aldera, Lore Gazteak dantza taldea sortu zen. Horrela, dantza talde moduan, besteak beste, txistuari sekulako bultzada eman zioten. Baina horrek ez zuen eraginik izan Udal Bandan, talde hark 1980. urte aldera egin zuen-eta azkeneko saioa. 1986an, Banda Munizipala sortzeko saiakera izan zen Udalaren aldetik, baina, talde haren betebeharrak gehiegizkoak zirelako-edo, asmoak ez zuen aurrera egin. Dena dela, esan beharra dago Udal Banda desagertu den arren, taldeko azken kide Kuki-k 2001era arte jotzen segitu duela.

Kontuak kontu, Arrasateko Txistulariei esker, urte dezentetan entzuten jarraituko dugu txistuaren doinua herriko kaleetan.



Saharako errefuxiatuekiko elkartasun kanpaina

Zure aztarna Saharan izenburupean aurkeztu zuten Saharako errefuxiatuei laguntzeko Arrasaten abiarazitako kanpaina. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Arrasateko Udaleko ordezkariak eta Mohamed El Mamun A.B., Fronte Polisarioko euskal ordezkaria. Alkateak jakinarazi zuen saharrendako janaria batzeaz gain, haien aldeko mozioa ere aurkeztuko dutela osoko bilkuran, eta 3.000 euroko dirulaguntza eman zaiela sahararrei. Mohamed El Mamunek, berriz, euskaldunon laguntza alde aurretik eskertu zuen eta esan zuen laguntza hori oso beharrezkoa dutela, batez ere, batuko den janaria. Gaineratu zuen sahararren arazoak baduela irtenbidea, baina borondate politikoa falta dela. Edozelan ere, bururik ez dutela makurtuko adierazi zuen.

Garzón epailearen errekerimendua iritsi da Arrasateko Udalera

UM

Oraingo astean, lan eta lan ibili behar izan dira Udalean, Garzónen eskaerari erantzun ahal izateko. 1979tik gaur egunera arteko dokumentazioa eskatu du epaileak, astebeteko epean bidaltzeko.

Joan den egunean, hilaren 16an, jaso zuten Baltasar Garzón epailearen errekerimendua Arrasateko Udalean. Gainerako udaletan moduan, hemen ere dokumentazio mordoa eskatu du Auzitegi Nazionaleko epaileak: 1979. urte-tik gaur egunera arte, Herri Bata-suna, Euskal Herritarrok eta Bata-suna taldeek egindako interbenzioen, protesta ekintzen eta aurkeztutako mozio guztien aktak.

Ez hori bakarrik: gainerako udalei moduan, Arrasatekoari ere astebete eman dio eskatutako guztia bidaltzeko.

ESKATUTAKOAZ EZ DAGO ARGIA

Xabier Zubizarreta alkateak zera adierazi du: "Epailearen aginduak betetzera behartuta gaude". Hortaz, dokumentazioa bidaliko diote. Baina, era berean, gaineratu du agindutakoa ez dagoela batere argi. Alde batetik, alkateak esan du HBren izenean aurkeztutako

mozio guztiak eskatu dituela Garzónék. "Baina kontua da da zinegotzi batek egiten dituen interbenzioak ez direla zertan partidu politiko batenak izan". Horrek giza eskubideak urratuko lituzke, alkatearen esanetan.

IDAZKARI ALDAKETAK

Arrasateko Udalean izan den idazkari aldaketa ere aipatu du alkateak. Izan ere, "Garzón epaileak Arrasateko Udalean izan diren

gertaera guztiak eskatu dizkigu (iskanbilak, protestak...). Baina horiek Udaleko idazkariak bakarrik zertifikatu ahal ditu; eta oraingo idazkariak azken bizpahiru urteotako gertakariak bakarrik zertifika ditzake".

PRESA LARREGI

Horrez gain, emandako epearen laburtasuna ere berbaigai izan du alkateak: "Ulertezina da horrenbesteko lana egiteko astebeteko epea ematea". Alkatearen iritziz, jatorri politikoa du presa horrek". Horrela, bada, batu ahal dutena bidaliko dutela esan du Xabier Zubizarretak.

Eta, lan hori guztia egitea Udalarendako kostu handia dela ere nabarmendu du; izan ere, Udaleko langile askok horretan jardun beharko dute egunotan.

ERTZAINZA ETORRIKO DA BILA

Kontuak kontu, gaurko (egubakoitza) Baltasar Garzónék eskatutako dokumentazioa gertu izan beharko du Arrasateko Udalak. Eta ertzain bat etorriko da dokumentazioaren bila, polizia judicial moduan.

Epailearen eskaeraren ondorioen gainean, berriz, Xabier Zubizarretak zera adierazi du: "Zaila da jakitea zer gertatuko den".



ARRASATEKO TXISTULARIAK

Aurten, Bartzelonan izan dira, Euskal Herriko Txistulari Elkarteko ekintza baten.

GIZARTEA/ Garraio zerbitzurako eta Udal Tasak ordaintzeko laguntzak

Udal Tasak ordaintzeko 2003ko laguntzak, aurrera

UBANE MADERA


Oraingo asteko Gobernu batzordeak onartu ditu Udal Tasak ordaintzeko eta garraio zerbitzua erabiltzeko 2003ko zenbatekoa eta baremo ekonomikoa. Eskaerak egiteko epea zabalik dago urtarrilaren 20tik martxoaren 14ra arte.

Arrasateko Udalak urtero laguntzak ematen ditu Udal Tasak (zaborra, ura eta zerbitzuak) eta garraio zerbitzua ordaintzeko. Aurten ere hala egingo du, eta Gobernu Batzordeak oraingo astean onartu du laguntza horiek emateko araudia. Araudi horrek, besteak beste, laguntzok eskatu ahal izateko baremo ekonomikoa zehazten du. Hau da, laguntzak eskatzeko, asko jota, diru kopuru jakina irabazi ahal da. Iñigo Garitanok, Gizarte Zerbitzu saileko teknikariak adierazi digunez, iaz moduan, aurten ere baremo hori lanbide arteko gutxieneko soldatak ezarriko du.

Hori horrela izanda, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen dutenek martxoaren 14ra arteko epea dute laguntzok eskatzeko.

GARRAIO ZERBITZUA

Horrekin batera, garraio zerbitzua erabiltzeagatik ematen diren laguntzen zenbatekoa eta onuradunen behin-behineko zerrenda



ARTXIBOA

Garraiorako bonoa eskuratzeko behin-behineko zerrenda onartu dute.

ere onartu du Gobernu Batzordeak.

Garraioa erabiltzeko bi laguntza mota ematen ditu Udalak: 17 euroko bonoa hileroko (33 bidaiaria doan egiteko) edo zazpi euroko bonoa (13 bidaiaria egiteko). Horrela bada, lehen azaldu ditugun Udal Tasak ordaintzeko %100eko laguntza jasotzen dutenek 17 euroko bonoa eskuratu dute. Gainera, koek, berriz, zazpi eurokoa.

BONOA ESKATZEKO

Garraiorako bono horien eskaer

ra Udal Tasak ordaintzeko laguntzen eskaerarekin batera egin behar da. Hortaz, eskaera epea ere lehengo bera da: martxoaren 14ra arte.

Edozelan ere, eskaera epea itxi eta laguntzak erabaki arte denbora dezente pasatuko dela-eta, Udalak onartu du onuradunen behin-behineko zerrenda: iaz jaso zuten herritarren zerrenda (bajak kenduta). Hortaz, herritar horiek dagoeneko eskura ditzakete bonoak. Dena dela, Udalak gutuna bidaliko die hori jakinarazteko.

GIZARTEA/ Erakusketa Industrial

Berritasunak egin dituzte Erakusketa Industrialean

Erakusketa Industrial inauguratu zutenean, argi utzi zuten erakusketa iraunkorra izan arren dinamikoa ere izango zela. Horren adibide moduan, laster tornu berria ekarriko dute Arrasatera; XVIII. mendeko egurrezko tornua,

hain zuzen ere. Orain, tornua konpontzen ari dira, nahiko txarto dagoelako. Sei-zortzi aste barru ekarriko dute hona.

Horrez gain, dinamizazio hori indartzeko lanean segitzen dute. Horrela, erakusketarako pieza

berriak lortzeaz gain, bisitaldi gidatuak bultzatu gura dituzte. Isabel Aramendia erakusketako koordinatzaileak esan digunez, zenbait taldek bisitatu dute erakusketa (langile ohiak, AEDko Zaharberri egitasmokoak...). Orain, ikasleendako material didaktikoa prestatzen ari dira, haiek ere bisitak egin ditzaten.

EPE LABURRERAKO HELBURUAK

Epe laburrerako helburuen barruan, berriz, liburu bat idazteko asmoa dutela esan digu Isabel Aramendia; langileen ahozko testigantzetan oinarritutako liburua, hain zuzen ere.

Horrekin batera, behin-behineko erakusketak antolatzeko asmoa ere badute. Aldameneko gela bat egokituko dute horretarako.

Isabel Aramendia esan digunez, harrera ona izan du orain arte erakusketak: 2.250 bisitari; gehienak, Arrasatekoak.



ERAKUSKETA INDUSTRIALA

Arrasateko azkeneko erremontaria, Bixente Barandiaran, bisita batekin.

LABUR

Elgoibartik Arrasatera etortzeko lehengo autobus zerbitzua ipintzeko eskatu du Udalak

Joan den urtarrilaren 7az geroztik, kenduta dago Elgoibartik Arrasatera zapatuetan 21:20an etortzen zen autobusa. PESA enpresak emandako arrazoiaren arabera, zerbitzu horretan behin eta berriro izaten diren gertaera larriak direla-eta kendu zuten zerbitzua. Horrez gain, autobus zerbitzuen arduradunak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, gaineratu zuten konponbideren bat topatu nahian ibili zirela, baina ez zutela ezer aurkitu; hortaz, autobus hori kentzea erabaki zuten.

Kontuak kontu, Arrasateko Udalak uste du zerbitzu hori beharrezkoa dela, eta berriro ere ipintzeko eskatu dio Diputazioari.

Jende dezente erabili zuen iaz Arrasateko taxi-bus zerbitzua

Autobusaz gain, Arrasaten taxi-bus zerbitzua erabiltzeko aukera ere badago. Hala egiten dute zenbait herritarrek, adibidez, Gesalibar inguruetara joateko; batez ere, ospitale psikiatrikoetara joaten direnei egiten die mesede taxi-bus zerbitzuak. Horrela, iaz, guztira, 7.468 lagunek erabili zuten zerbitzu hori. Hain zuzen ere, Arrasatek Gesalibarrera joateko 3.846 lagunek hartu zuten eta Gesalibartik Arrasatera etortzeko, 3.622 lagunek. Hilabetei begiratuz gero, berriz, irailean ibili zen bidaiari gehien.

Erakusketa Industrialaren ordutegia neguko ohituretara egokitu dute

Erakusketa Industrialak ordutegia aldatu du Gabonetan. Hain zuzen ere, neguko ohituretara egokitu dute erakusketaren ordutegia. Horrela, aste barruan, 20:00etan itxi beharrean, 19:30ean ixten ari dira. Eta zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, 10:00etan zabaldu beharrean, 11:00etan zabaltzen ari dira. Bisitaldi gidatuak, berriz, martitzenetik egubakoitzera bitartean egin ahal dira, 10:00etatik 12:00etara. Baina bisita lotzeko telefonoz deitu beharra dago lehenago; 943 71 17 91 telefonora deitu behar da horretarako.



San Baleixo jaiak Meazterrekan

Gaur (egubakoitza) hasi eta domekara arte, jaiak izango dira Meazterrekan. Auzo afaria egingo dute gaur, dantza saio eta guzti. Bihar, zapatua, berriz, 12:00etan, areto futbol partidua jokatuko dute; 15:30ean, gazteendako jolasak izango dira; eta gero, Gorritiren animaliak eta txokolate jana; 17:00etan, 22. Mus Txapelketa jokatuko dute; eta gauean, erromeria, txerri harrapatzea eta berakatz zopa izango dira. Domekan, 11:30ean, meza izango da San Baleixo ermitan, Garagartzako abesbatzarekin; gero, txistulariek saioa egingo dute, eta 14:00etan bukatuko dira jaiak.



DANBORRADA ARRASATEN

Joan den astelehenean, San Sebastian eguna ospatu zuten Gipuzkoako hainbat herritan. Arrasateko gaztetxoek ere ospatu zuten jai hori. Arrasate Irratian danbor hotsak izan ziren astelehen goizean, eta Donostian bertan geundela ematen zuen. Donostiara joan ez zirenek kontsolatzeko aukera izan zuten.



'BASETXEA'-KOAK ARRASATE IRRATIAN

Iñigo eta Jokin ETBko Basetxea saioko parte-hartzaileak Arrasate Irratian egon ziren joan den egunean, hilaren 16an. Parte-hartzaile bi horiek saioko finalera iritsi ziren, nahiz eta azkenean saririk irabazi ez. Iñigoren eta

Jokinen esanetan, saioan hainbat etapa izan ziren: hasieran ez zuten aspertzeko denborarik izan, baina amaierarako gauzak dezente aldatu ziren, eta gose apur bat ere pasatu zuten. Lagun onak izaten jarraitzen dute.



JAI-ZALEN EMOZIO HANDIKO MAHAI-FUTBOL TXAPELKETA

Joan den martitzenean, Mahai-futbol Txapelketako finala jokatu zen Jai-Zale tabernan. Mahai-futbol Txapelketa abenduaren 2an hasi zuten, eta hemezortzi bikote izan dira lehian. Argazkian David eta Asier agertzen dira, txapelketako irabazleak. Finalean Pelloren eta Andresen kontra neurtu zituzten indarrak, eta emozio handiko finala jokatu eta gero, David eta Asier nagusitu ziren.

Kanebo
INTERNATIONAL


MIREN ARRIETA PERFUMERIAN

Zure larruazaleko edertasun ezkutua topatzen lagunduko dizugu

Urtarrilaren
27tik 31ra
PROMOZIOA
KANEBO
produktuak
erosteagatik
oparia jasoko
duzu*

Bisita gaitzazu Arrasaten
Zerkaosteta kalea 12
Tel.: 943 79 00 35

* Izakinak bukatu arte.



LEHOI GALANTA HOLIDAY ZIRKUAN IKUSGAI

Dagoeneko iritsi da Holiday zirkua Arrasatera, eta guk hango animaliak gertu-gertutik ikusteko aukera izan dugu. Besteak beste, krokodiloak eta lehoiak ikusi ditugu, eta ez nolana hikoak, gainera. Atzo egin zuten lehen emanaldia, eta domekara arte egongo dira Arrasaten. Bestalde, zirkua gurean dagoen bitartean, zoota bisitatzeko aukera ere egongo da, goizeko hamaiketatik ordu bietara. Aukera baldin baduzue, ez ezazue kalerik egin, merezi du-eta.

Jonathan Perezek urrea lortu zuen pertika-jauzian Anoetan

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, Arrasateko atletek emaitza onak lortu zituzten. Gipuzkoako Txapelketan Jonathan Perez mondragoetarrak 4,75 metroko jauzia egin zuen Anoetan. Bestalde, Eskola Arteko Txapelketa ere Anoetan jokatu zen, eta Arrasateko atleta gazteek lan bikaina egin zuten.

Joan den zapatuan, Gipuzkoako Txapelketa izan zen jokoan. Pertika-jauzian Jonathan Perez izan zen onena, 4,75 metroko jauziarekin. Arrasatekoa 4,86 metroko jauzia egiten ere ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Lander Errasti laugarrena izan zen; Landerek pertika berriarekin hainbat arazo izan zituen, eta 2,80 metroko jauzia egin zuen.

ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

Joan den asteburuan, Eskola Arteko Txapelketak ere jokatu ziren Anoetan. Arrasateko atleta gazteek emaitza onak eskuratu zituzten, eta San Viator Ikastola izan zen lehena.

Mila metroetako lasterketan Markel Blanco gaztea izan zen azkarrena; 2'58" behar izan zuen proba betetzeko. Iñaki Etxagibel



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Jonathan Perez, Iturripen entrenatzen.

ere azkarrena izan zen 60 metroetako hesi lasterketan. Lehenengo postuekin jarraituz, Jon Ander Amado ere onena izan zen altuera-jauzian; 1,43 metroko jauzia egin zuen. Horrez gain, Xabi Carmona bosgarrena izan zen 60 metroetan; Imanol Esperezate laugarrena 500 metroetan; eta luzera-jauzian Iñaki Telleriak brontzea lortu zuen, 4,15 metroko jauziarekin; eta 4x50 errelebu lasterketan Etxagibel, Uribetxe-

barria, Telleria eta Esperezate bigarren geratu ziren.

ASTEBURUKO PROBAK

Bihar, zapatua, Jonathan Perezek Kluben Arteko Kopan hartuko du parte, Anoetan. Domekan, berriz, Donostiako Nazioarteko Krosa korrituko da: 3.010 metroetan Markel Blanco izango da; 6.844 metroetan Endika Donnay izango da eta 10 kilometroetan Javier Mentxakak hartuko du parte.

FOTOKIROLA



Arrasateko Motozale Elkarteko bazkide

Motorraren mundua atsegin duzuenok, jakin, Arrasateko Motozale Elkarteko bazkide izateko epea zabalik dagoela. Bazkide izateko nagusiek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Hemezortzi urtetik beherakoek, berriz, 15 euroko kuota izango dute. Arrasateko Motozale Elkartean izena eman nahi duenak Gipuzkoa Etorbideko 47. zenbakian duten lokalera joan beharko du, eta izena emateko epea otsailaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago 943 79 68 31 telefonoan.

FOTOKIROLA



Kenci Arrasate bolada onari eusteko asmotan joango da Donostiara

Arrasateko saskibaloitza taldeak partidu garrantzitsua irabazi zuen joan den zapatuan Iturripen. Iker Zubiriaren mutilek Calasancio talde nafarraren kontra neurtu zituzten indarrak, eta mondragoetarrak 95-82 nagusitu ziren. Calasancio igoera faserako sailkatzeko aurkari zuzena da; hortaz, zapatukoa garaipen garrantzitsua izan zen. Norgehiagoka parekatua izan zen: 22-22 lehenengo laurdenean eta 40-37 bigarren laurdenean. Hirugarren laurdenean Arrasatek markagailuan aurre hartu zuen, eta hiruko saskiratzeak erabakigarriak izan ziren. Eta laugarren laurdenean mondragoetarrek ondo eutsi, eta partidua irabazi zuten. Oraingo asteburuan, Kenci Arrasateko Atletico San Sebastian taldearen kontra jokatuko du; derbia izango da, hortaz.

'SKATE'-A

Arrasateko gazte koadrila batek herriko lehen 'skate' taldea sortu du: Arraska

Arrasateko skater koadrila batek Arrasateko lehenengo skate taldea sortu du: Arraska taldea. Taldeak aurrera egiteko, baina, herri-tarren laguntza behar du. Horretarako, taldeak dirulaguntzak onartzeaz gain, taldeko bazkide egiteko aukera ere egongo da. Taldeko bazkide izan gura duenak bost euro ordaindu beharko ditu. Arraskak ez dauka geldirik egoteko asmorik: skate eskolak, kontzentrazioak, txapelketetara bidaiak... Bazkide egin gura baduzu edo informazio gehiago eskuratu, deitu 658 74 09 49 telefonora.

ZIKLOTURISTAK

Debagoiena Zikloturista Taldean izena emateko epea zabalik dago

Debagoiena Zikloturista Taldeak laster hasiko du aurtengo denboraldia. Aurten ere bazkide eta lizentzia berriak egiteko aukera egongo da. Taldeko bazkideak ez diren zikloturisten lizentziak ere egingo dituzte. Lizentzien prezioa 70 eurokoa da. Horrez gain, bazkideen urteko kuota sei eurokoa izango da. Bazkide berriek, lehenengo urtea denez, 12 euroko kuota ordaindu beharko dute. Aurten, taldeak maillot berria estreinatuko du. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, nereago@euskalnet.net helbidera idatzi.

XAKEA

Aretxabaletako Arlutz taldeak erraz irabazi zion Arrasateko San Andres taldeari

Joan den zapatuan, Arlutz Xake Taldeak Arrasateko San Andres Xake Taldeari erraz irabazi zion (3,5-0,5). Arrasatekoak irabazteko asmoz abiatu ziren Aretxabaletara, baina ez zen posible izan. Aretxabaletako taldekoek argi eta garbi utzi zuten ligako liderrak zergatik diren. Arlutz taldeak lehenengo postuan jarraitzen du, eta mailaz igoko da. Arrasatekoen helburua ere mailaz igotzea da, baina oraindik gogotik egin beharko dute lan.



ARRASATE PRESS

Zumaiakok eta Urolak kale egin zuten joan den asteburuan. Mondrak aukera ezin hobea galdu du.

FUTBOLA

Mondrak, hiru puntuak galtzeaz gain, burua ere galdu zuen Orion

Arrasateko futbol taldeak zortzi jokalarirekin amaitu zuen partidua

XABIER URZELAI

Arrasateko taldeak ahazteko moduko partidua jokatu zuen joan den astean Orion. Oriokok egin zuen partiduko lehen gola; gero, Mondrak norgehiagoka berdindu egin zuen, eta aurre hartzeko aukera zuenean, epaileak Arrasateko hiru jokalarik kanporatu, eta Oriokok 2-1 irabazi zuen.

Zapatukoa irabazteko partidua zen, baina Mondra esku-hutsik bueltatu zen Oriotik. Eta esku-hutsik bueltatu zen, ez Oriokok ondo jokatu zuelako, baizik eta Mondra gaizki ibili zelako. Izan ere, izan zituen gol aukerak ez zituen aprobetxatu; gaizki defendatu zuen (eta hori ez da defentsen kontua bakarrik); eta ahoa larregi zabaldu zuten jokalariek; izan ere, futbolekin eginez lortzen duguna ahoa zabaltzearekin batera galtzen dugu.

JOKOAN, ARRASATEARRAK NAGUSI

Mondrak gaizki jokatu zuela esan dugu; edozelan ere, partiduan arrasatearrak izan ziren nagusi. Lehenengo zatian haizea izan zuen protagonista, eta ez zen erraza izan futbolekin ondo egitea. Baloia jabetza Mondrak izan zuen, eta, hala ere, Josu Zubiriaren mutilek ez zuten gol aukera garbirik izan. Oriokok, berriz, gol aukera bi izan zituen: lehenengoan Argi-derrek ez zuen baloia ondo urrundu, baina Orioko aurrelariak kanpora bota zuen baloia; bigarren, berriz, Mondrak erraztasun

handiak eman zizkion Orioko erdilari bati, eta atzetik etorrita Julio atezainarenganaino iritsi, eta bat eta hutsekoa egin zuen.

Lehen zatia 1-0 amaitu zen; hortaz, bigarren zatian Mondrak oso argi zuen egin beharrekoa. Ondo hasi ziren, eta Jon Murua-mendiarazek banakoa egin zuen. Ondorengo minutuetan beste bi aukera garbi izan zituen Jonek, baina ez zuen asmatu. Eta beste gol aukera garbi batzuk ere izan ziren, baina Mondrakoek horietan ere kale egin zuten. Bazirudien berehala ikusiko genuela bat

eta bikoa. Eta, hala, gutxien espero genuenean, Julio atezainari txartel gorria atera zion epaileak, protesta egitearren. Mondra hamar jokalarirekin geratu zen, eta handik hamar minutura, Asier González *Tirik* ere aldageletarako bidea hartu zuen, hark ere protesta egitearren. Horren ondorioz, Mondra hankaz gora geratu zen, eta Oriokok bi eta batekoa egin zuen. Azken minutuetan Kepa atzelariari ere bigarren txartel horia atera zion epaileak, eta Mondra zortzi jokalarirekin geratu zen. Handik aurrerakoa...

Taldeari errespetua

Mondrako jokalariek argi eta garbi izan beharko lukete zertan dabilzan. Lehenago aipatu ez badugu ere, joan den zapatuko epailea gaztea bezain txarra zen, txarra eta harroa. Arrasateko jokalarik batzuekin jarrera probokatzailera izan zuen, baina ez da lehen aldia hori gertatzen dena, eta ez da azkena izango. Juliok eta *Tiri*-k protesta egiteagatik aldageletan amaitu zuten. Atxabalpera hurreratzen den edonork badaki jokalarik bi horiek odol berokoak direla, baina odol bero hori aldageletan uzten jakin behar da, edo behar denean ateratzen jakin, ez beti. Zapatuan, partidua irabazteko aukera garbia zegoenean, odol bero horri eusten ez jakiteagatik Mondra bederatzik jokalarirekin geratu zen. Eta, azkenerako, talde osoak amaitu zuen lekuz kanpo, baita aulkian zeudenek ere, eta Arrasateko taldea lotsagarri geratu zen Orion.

Mondra ez da Zaldibarko Txapelketako talde bat. Herria ordezkatzeko duen futbol taldeetako bat da, eta, galdu edo irabazi, joan den zapatukoa baino itxura hobea eman behar du. Taldeari errespetua zor zaio, eta guztiok izan behar dugu hori garbi; guztiok.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Komando Alpagat . . .	2-2
Al Kaeda - Etxerat	8-13
Makanaki - You Know!	2-6
Betrayer - NS/NC	3-1
Maldifa's - Iriztu taberna	0-1
Goma-2 - Lasagabaster	3-7
Rayo Aldeano - Abocajarro	0-1

B MULTZOA

El Ekipo A - Etxinai!	3-3
AC Surcos - AT Celaya	6-4
Bikain Akademia - Aurrera Bolle	3-8
Koka Juniors - Fuxxion	----
Billy & The... Whiskeria	3-4
Saloga - Estu Ta Larri	5-7
Dribling.es.vg - Fraguol Gol	8-10

PARTIDUAK

URTARRILAK 25, ZAPATUA, EPAILEAK

08:50: Billy & The... - Fraguol Gol.	Betrayer
10:00: Betrayer - Lasagabaster.	Billy&The...
11:00: AC Surcos - Fuxxion.	Lasagabaster
12:00: Koka Juniors - Estu Ta Larri.	Fuxxion
13:00: Dribling - Saloga.	Estu Ta Larri
14:00: Al Kaeda - NS/NC.	Saloga
15:00: Bikain Akad - Whiskeria.	NS/NC
16:00: K.Alpagat - You Know!.	Bikain Aka
17:00: Saukelu S - Etxerat.	You Know
18:00: Etxinai! - Aurrera Bolle.	Saukelu Scr

URTARRILAK 26, DOMEKA

10:50: Makanaki - Iriztu tab.	El Ekipo A
11:50: AT Celaya - El Ekipo A.	Iriztu Tab
13:00: Koka Juniors - Fuxxion.	AT Celaya

Deskantsua; Goma-2, Abocajarro.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	16	8
2. Dribling.es.vg	14	9
3. Fuxxion	12	8
4. AT Celaya	11	9
5. Aurrera Bolle	11	8
6. Bikain Akademia	11	9
7. Koka Juniors	10	8
8. Fraguol Gol	11	9
9. Etxinai!	9	9
10. El Ekipo A	7	9
11. Billy & The Cowboys	7	9
12. Estu Ta Larri	6	9
13. Saloga	4	9
14. Whiskeria	2	9

B MULTZOA

	P	J
1. You Know!	14	9
2. Iriztu Taberna	13	9
3. Etxerat	12	9
4. Saukelu Scream	12	9
5. Makanaki	12	9
6. Betrayer	11	9
7. Komando Alpagat	10	9
8. Lasagabaster	9	9
9. Goma-2	9	9
10. NS/NC	7	9
11. Abocajarro	6	9
12. Al Kaeda	5	9
13. Maldifa's	3	9
14. Rayo Aldeano	3	9

EZ DAGO ZIGOR BARIKO ASTEBURURIK!

BILLY & THE COWBOYS, FIDANTZA BARIK

Zaldibarko Txapelketan lehenengo urtea duten arren, Billy & The Cowboys taldeak buruhauste ederrak sortzen dizkie antolatzaileei. Talde horren jarrera ez da batera egokia, eta astebururo istiluak izaten dituzte epailearekin edo kontrarioekin. Bada, talde gazte hori fidantza barik gelditu da; ea lasaiago ibiltzen diren!

ASTEBURUKO PARTIDUAK

Asteburuan partidu interesgarrienak zeintzuk izango diren esatea ez da erraza izaten. Zapatu goizean, AC Surcos eta Fuxxion taldeen arteko partidua azpimarratuko genuke; arratsaldean, berriz, Etxerat eta Saukelu Scream izango dira nor baino nor gehiago. Eta domekan, Makanaki eta Iriztu taldeen arteko norgehiagoka gomendatzen dizuegu.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Idiazabal Erregionala. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
Mondra - Sto. Tomas Lizoea Ohor gazt. Domekan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate B - Bergara Big. kadet. Domekan. 10:00. Atxabalpen
Arrasate CD - Añorga Infantilak. Domekan. 16:00. Atxabalpen
Ilintxa - Mondra Neskak. Domekan. 16:00. Legazpin.

SASKIBALOA

Atletico SS,UPV - Kenci Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 17:30. Aieten.
Zarautz A - Kenci Arrasate Junior giz. Zapatuan. 16:00. Antonianon
Kenci Arrasate - Internacional Kadet giz. Zapatuan. 12:00. Musakolan.
Loiola - Kenci Arrasate Kadet emak. Domekan. 12:00. Jesuitasen.

ESKUBALOA

Arrasate - Hegialde Auto Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

Donibane Cottal - AGR Arrasate

Big. seniorrak. Domekan. 11:00. Donibanen.
Gatz Museoa Jakion- Egia Jogge Kadete mut. Domekan. 11:15. Iturripen.
Gatz Museoa Jakion- Tolosa Esk Gazteak mut. Zapatuan. 16:15. Iturripen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Orioko - Mondra	2-1
Ohor. gazte maila: Añorga - Mondra	3-1
Lehen kadet.: Arrasate CD - Urola	2-2
Bigarren kadet.: Urola - Arrasate B.	1-1
Infantilak: Aretxabaleta - Arrasate.	1-0

SASKIBALOA

Seniorrak: Kenci Arrasate - Ursulinas	95-82
Juniorrak: Arrasate - Andraitz	74-38
Kadete mutilak: Arrasate - Tolosa	37-87

ESKUBALOA

AGR Arrasate - BKL Caf	31-14
Donibane Majestic - Arrasate	25-13

XAKEA

Aretxabaleta - Arrasate	3,5-0,5
-----------------------------------	---------

ESKUBALOIA

AGRk erraz irabazi zuen, eta bigarren taldea osorik etorri zen Donibanetik

'Pitxi' Herreroen mutilak min hartu barik iritsi ziren Arrasatera, eta ez da gutxi, Donibanekoek, eskubaloian baino gehiago, errugbian jokatu zuten-eta

XABIER URZELAI

Senior mailako talde nagusiak erraz irabazi zion Beasaingo BKL CAF taldeari (31-14). Bestalde, bigarren taldeak partidu gogorra jokatu zuen Donibanen, eta Herreroen mutilak jipoi ederra jaso zuten (25-13). Eskubaloian egiteko aukera gutxi izan zituzten.

Senior mailako bigarren taldeak partidu gogorra jokatu zuen zapa-tu arratsaldean Donibanen. Arrasatearrek ondo hasi zuten partidua; markagailuan aurre hartu zuten, eta bazirudien zeingehiagoka parekatua izango zela. Lehenengo hamabost minutuetan mondragoetarrak izan ziren nagusi (5-6). Gero, Donibanekoek hutsartea eskatu zuten: euren entrenatzaileak defentsa indartzea erabaki zuen, eta, horrez gain, gogor jokatzeko hasi ziren, oso gogor. Falta mordoa egin zituzten, baina epaileak ez zituen erdiak ere adierazi, eta partidua berotzen hasi zen. Arrasatekoek

gurago izan zuten lasai jokatzeko, Donibanekoek jokoan ez sartzea, eta Donibane erraz nagusitu zen.

TALDE NAGUSIAK, GOL ASKO

AGR Arrasatek ligako talde ahulenetako baten kontra neurtu zituen indarrak, eta zeingehiagokak ez zuen kolore handirik izan. Arrasatearrei kostatu egin zitzaizkien partiduan sartzea, baina sartu eta berehala, Beasaingo taldeak sekulako gol zaparrada jaso zuen. Bernardo Balerdiren mutilak beste batzuetan baino jaurtiketa gehiago egin zituzten, lan polita egin zuten erasoan, eta defentsan ere ez zuten kalerik egin. Beasaingo taldeak ezer gutxi eginda utzi zuen Musakolako kiroldegia; hori bai, gol zaparrada ederra eraman zuten Beasain aldera (31-14).

Datozen asteotan, igoera fasea zein taldek jokatu duten erabakiko da, eta AGR Arrasate lehia horretan izango da. Etxekoak goiko postuetan daude; hortaz, hurrengo asteko partiduak garrantzitsuak izango dira.



MIKEL ARANBURU

AGRk Musakolako kiroldegian jokatu zuen partidua, eta etxekoak erraz nagusitu ziren.



urtarrilean maldan behera

% 50
eraino

ATLETISMOKO ERROPAN,
MENDIKO ERROPAN,
KIROL-MODAN ETA
HAUR-MODAN.

2. Merkealdiak



SPORTLAND
FORUM SHOPS

Garibai Etorbidea, 2-6 • Arrasate

KIROLA ZEURE ESKURA

KOMIKIA ETA LITERATURA/ Arrasatear batek eta nafar batek 'Dolor de dientes' izeneko komiki-liburua kaleratu dute

Mutiko baten haurtzaroari eta gaztaroari begiratu egin diote komiki-liburu baten

IKER BARANDIARAN

Jabier Etxagibel arrasatearrak eta Ernesto Murillo *Simonides* nafarrak *Dolor de dientes* izeneko komiki-liburua kalera-tu dute. Liburuiko protagonista den mutilaren istorioek bat egiten dute herriko dentisten kontsultetan, eta Arrasaten oinarrituta dago.

Orain dela hamabi urte, Jabier Etxagibelek bere haurtzaroan eta gaztaroan oinarritutako idatzi bat egin zuen. Besteak beste, dentistak, San Viatoroko abadeak eta eskautak zirikatze gogoak zeukan. Horrenbestez, idatzia egina zeukan, eta 2001ean, Gasteizen Ernesto Murillo *Simonides* lagunaren erakusketan bateko marrazkiak ikusi zituenean, proiektua abian jartzea erabaki zuen Jabier Etxagibelek.

Jabierrek idatziak erakutsi zizkion *Simonides*-i, eta marrazkilaria interesgarria iruditu zitzaion. Horrela, lanean hasi ziren, baina konturatu ziren komiki arrunt bat eginez gero, idatzia laburtu egin beharko zutela, eta,


horren ondorioz, idatzitakoak indarra galduko zuela.

'COMICAO': TESTUA ETA KOMIKIA

Hori dela eta, bitarteko formatua asmatu zuten: *comicao* delakoa. Liburu baten moduan, hainbat orrialde idatzita daude, baina pertsonaien arteko elkarrizketak binetatan sartu dituzte, eta ilustrazioak ere tartekatuta dituzte. Euren kasa kaleratu dute liburu eta Euskal Herriko liburu den-detan dago salgai.

Etxagibelek asmatutako eta *Simonides*-ek marraztutako istorioak mutiko baten gorabeherak kontatzen ditu, 7 urte dituenetik 14 bete artean. Lehenengo zatian beldurra lantzen dute: minari beldurra, San Viatoroko abadeei... Eta bigarren zatian lotsa lantzen dute: neskekin harremanak, eskauta izatearen esperientzia...

Ernesto Murillo *Simonides* oso marrazkilaria ezaguna da. 70eko hamarkadan, *Star* aldizkarian marrazten hasi zen, eta *Vibora*, *Makoki*, *Harakiri*, *Habekomik* eta beste hainbat aldizkaritarako ere egin izan ditu marrazkiak. *TME*-Oko sortzaile ere bada.



AITOR URIZAR

Irudian, Jabier Etxagibel eta Ernesto Murillo *Dolor de dientes* komiki-liburuaren egileak, Gure Leku tabernako aurkezpenean.

BITXORI

Ileapaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

ELKARRIZKETA

KAÑERIA 13/MUSIKA TALDEA

“Diskoa kaleratu aurretik, ehunka gauza gertatu zaizkigu”

IKER BARANDIARAN

Egunotan, Garagartzako Kañeria 13 punk-rock taldeak diskoa kaleratu du. Horrez gain, Kañeria 13k Garesen eta Bartzelonan kontzertuak eman ditu, The Kagas taldearekin batera, eta gaur, Bergarako Jam aretoan joko dute.

Noiz hasi zineten eta zeintzuek osatzen duzue Kañeria 13 taldea?

1996an hasi ginen. Horren aurretik, taldeko batzuek Komando Harrikara taldean jotzen zuten. Gaur egun, taldea honako hauek osatzen dugu: Ulli, abeslaria; Zuhaitz eta Osoron, gitarra; Orobena, bateria; eta Egoitz, baxua.

Esku artean daukagun diskoa grabatu aurretik, zer-nolako ibilbidea egin du taldeak?

Espero genuen baino leku gehiagotan jo dugu. 2000n, make-ta kaleratu genuen. Bostehun kopia atera eta denak saldu genituen. Batez ere, berezia izan zen Jam aretoan Stiff Little Fingers taldearekin jo genuenean.

Eta, halako baten, Shot! estudioetara diskoa grabatzera sartu zineten...

Bai. 2002ko martxoan sartu ginen Shot! estudioetan, eta oso esperientzia berezia izan zen. Garai hartan, gure artean tirabirak izan genituen, baina grabatu beharra zegoen... Emaitzarekin gustura geratu gara, baina hobeia izan zitekeen.

Eta, handik denbora laburrera, taldea bertan behera utzi zenuten...

Bai, hala da. Azkeneko kontzertua 2001eko abenduan eman genuen, diskoa grabatu aurretik. Gor diskoetxeekin diskoa ateratzeko harremanetan genbiltzan, baina taldea geldi zegoen. Gerora, poliki-poliki, gure arteko giroa hobetuz joan da.

Hala ere, Kañeria 13 geldiegon den bitartean, taldeki-deak ez zarete aspertu...

Bai, egia da. Gutako batzuk beste talde batzuetan jotzen ibili gara: Zuhaitz, Jukebox taldean; Osoron, tarteka, Des-Kontrol, Honky Tons eta The Kagas taldeetan; Orobena beste talde baten sartzeko puntuan egon zen.

Eta, bat-baten, bueltan zaudete, luxuzko biratxoak egiten zabilzate eta diskoa kaleratu duzue. Deabruari arima saldu diozue?

Deabruari baino gehiago, arima Shot! estudioetako Iñaki Bengoari saldu diogu: Iñakik Osoroni deitu zion, The Kagas taldean jotzeko. Handik denbora laburrera, Kañeria 13 berpizteko



KAÑERIA 13

“Harrituta gelditu gara, eszenatokien tamainagatik eta ikusle kopuruagatik”

asmoarekin genbiltzala-eta, The Kaga taldearekin jotzeko gonbidapena egin ziguten. Guk diskoa kaleratzeko asmoa genuen, eta Iñakiren bitartez, Potencial Hardcore diskoetxeak baiezkota eman zigun. Egia esanda, horrek guztiak taldeari bultzada handia eman dio.

Hortaz, taldea indarberrituta dago?

Bai. Geure artean batasun handiagoa eta giro hobeia dago. Hori da garrantzitsua. Horrela egonda, gauza asko egiteko gai gara.

Azaldu zelakoa den zuen diskoa. Zer-nolako abestiak ditu?

Punkaren eta rock-and-rollaren artean kokatuko genuke.

“Beste gai batzuen artean, heriotzaren ideia oso presente dago atera dugun diskoan”

Kantu batzuk aspaldikoak dira; adibidez, maketako abesti bi daude: *Noche sangrienta* eta *Hutsunea*. Beste batzuk, ostera, berriagoak dira. Gure helburua ez da estilo zehatz bateko abestiak egitea. Irteten den kantua gustuko badugu; aurrera. Gainera, taldekide bakoitzak musika estilo desberdinak entzuten ditu, eta hori igarri egiten da emaitzan.

Zeinek egiten du musika? Eta zeinek idazten ditu hitzak?

Musika denon artean egiten dugu. Hitzak, ostera, Ullik egiten ditu. Eta beste taldekideren batek hitzen bat idazten badu, Ullik ez du abestu gura izaten; izan ere, hark egindakoak bakarrik abesten ditu.

Eta hitzek zeren gainean

berba egiten dute?

Abesti batzuk zaharragoak diren arren, horietako batzuk Ullik izan zuen bizikleta istri-puaren ondorengoak dira. Ullik heriotza gertutik ikusi ei zuen, eta horrek hainbat kantutako hitzak idazteko balio izan zion. Arrazoi horregatik, beste gai batzuen artean, heriotzaren ideia oso presente dago diskoan.

Diskoan euskarazko abesti bakararra sartu duzue...

Bai. Maketan sartu genuen *Hutsunea* kantua grabatu dugu. Gurako gure kantua gehiago euskaraz abestea, baina gaztelaniaz irteten zaizkigu. Hemendik aurrera, euskaraz abesteko ahalgin handiagoa egin behar dugu.

Diskoaren izena, *Miles de historias*, nondik dator?

Zalantzan egon ginen diskoari zein izen jarri: *Miles de historias* edo *Puto disco*. Diskoa grabatu ondoren, taldea bertan behera utzi genuen eta diskoa zintzilik gelditu zen. Diskoa kaleratu aurretik, ehunka gauza gertatu dira.

Zer-nolako harrera izan duzue The Kagas taldearekin batera Bartzelonan eta Garesen eskaini dituzuen kontzertuetan?

Oso ona. Uste genuen baino askoz hobeia. Garesen 800 lagun baino gehiago egon ziren eta Bartzelonan, 1.400 lagun inguru. Iraganen, Stiff Little Fingers taldearekin batera jo genuenean, ikusleak askoz hotzago egon ziren. Eskaini berri ditugun kontzertuetan, ostera, ikusleek ondo hartu gaituzte; jendea saltoka eta kantuan ikusi dugu; eta Cicatriz eta Ramones taldeen bertsoak jotzerakoan, ikusleak zoratu egiten ziren. Harrituta gelditu gara, bai eszenatokien tamainagatik, baita ikusle kopuruagatik ere. Ez gaude ohituta.

Erratuta ez banabil, Garesen Ullik pasarteren bat izan zuen...

Bai. Hirugarren abestian, berotu, eta monitoreen gainera igo zen. Halako baten, labandu egin zen eta kolpe handia hartu zuen. Abesten jarraitu zuen, baina orain, lepokoak jarri diote. Hala ere, ondo dago, umorearekin.


Eta noiz irtengo da diskoa?

Atzeratu egin da, baina egubakoitzerako (gaurko) kalean egongo dela espero dugu. Egin ditugun kontzertuetan jende askok diskorik ba ote genuen galdetu digu. Diskoa merke saltzeko asmoa daukagu.

Zein asmo daukazue orain?

Ahalik eta kontzertu gehien ematea da gure asmoa. Bestalde, ahal bezain pronto, abesti berriak ateratzeko asmoa daukagu.

KULTURAPILULAK



‘Nothing Without’ fantzineak kalean du zortzigarrena

Kalean dago Arrasaten egiten duten *Nothing Without* fantzinearen azken zenbakia. *Skate-a* eta *hardcorea* ditu ardatz. Zapatuan, Arrasateko Ekaitz tabernan egin zuten jaian fantzinearen bosgarren urteurrena ospatu zuten. Bergarako Fly Shit taldeak kontzertua eman zuen, eta gero, *hardcore* musika jarri zuten.

Poliki-poliki, fantzine horren maila handituz joan da. Hasi zirenetik, *skate*-aren gaineko berriak eta *hardcore* musika landu izan dituzte. Esperientzia hartuz joan diren neurrian, geroago eta artikululu landuagoak egin dituzte.

Bosgarren zenbaki horretan Sor Kanpanaren poesiak, *skate*-aren gaineko hainbat artikululu eta elkarrizketa batu dituzte. Baita fantzineko partaideek Bartzelonara eta AEBetara egin zituzten bidaien kronikak ere.

Musikak geroago eta garrantzi handiagoa dauka: Donostia aldeko 25 Coming Fire eta Arrasateko Jukebox taldeei elkarrizketa bana egin diete. Eta hainbat diskoren kritikak egin dituzte. Fantzinean Arrasateko tabernetan eskura dezakezu (1,5 euro); eta sarroyo@mixmail.com helbidean ere eska dezakezu.

Juan Jose Altuna Akizu-k margolanen erakusketa jarri du

Juan Jose Altuna *Akizu-k* margolanen erakusketa jarri du Maala kaleko Arregi galerian. Juan Jose jaiotzez arresatearra da, baina aspaldian Bergaran bizi da.

Urtarrilaren 17an zabaldu zuen erakusketa Juan Josek, eta margolanak otsailaren 17ra arte egongo dira ikusgai Arregi galerian, eta da horren lanorduetan.

Erakusketa hamalau margolanek osatzen dute eta Juan Josek *Espacios en construcción* izena jarri dio. Teknikari mistoak erabiltzen ditu eta post-minimalismoa lantzen du. Kontzeptuan arkitekturen eta pintura uztartzen ditu.

E, TXO!

GAZTEEN KONTSEILUAREN LOGOTIPO LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak Arrasateko Gazte Kontseiluaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileek Arrasaten bizi, lan egin edo ikasten duten gazteak izan beharko dute, eta hiru kategoriatan banatu dituzte: 5 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak, 13 eta 17 urte urteko gazteak eta 18 eta 30 urte bitartekoak, hain zuzen ere. Lanak zuri-beltzean zein koloreetan egin daitezke, eta teknika libre izango da. Sarietarako dagokionez, sari bana banatuko dute kategorian bakoitzean: jostailu sorta bat, kirol material sorta bat eta 750 euro. Lana aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da.

URRUZUNO LITERATURA LEHIAKETA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Urruzuno Literatura Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa horren helburua da gazteen artean euskara sustatzea. Interesatuak literaturako alor askotan parte hartu ahal izango dute: besteak beste, poesia, ipuina eta bertso-paperak. Gaiak libreak izango dira, eta lanak aurkezteko epea apirilaren 9an bukatuko da. Informazio zabalagoa, honako telefono zenbakian: 945 01 80 00.

GAZTE BULEGOA, BERRIRO ZABALIK

Joan den aste osoan, Arrasateko Gazte Bulegoa itxita egon da. Bulegoa itxeko arrazoia eraikinean egiten ari diren konponketak dira. Eta joan den astean, eraikinarren barneko aldea margotu egin zuten.

Astelehenetik aurrera Gazte Bulegoa berriro zabalik egongo dela jakinarazi digute.

GUREGAIK/ AURKEZLE IZATEKO 'CASTING'-AK

EITBko komunikatzaile eta aurkezle izateko 'casting'-a, bukatzean

IKER BARANDIARAN


Euskal Irrati-Telebistak (EITB) komunikatzaileak eta aurkezleak kontratatzeko casting-a antolatu du. Izena emateko epea gaur, egubakoitza, bukatu da, eta dagoeneko jende mordo animatu da.

Urtero moduan, aurten ere EITBk saio berrietarako komunikatzaileen eta aurkezleen casting-a antolatu du. Urtarrilaren 7an zabaldu zuen izena emateko epea eta gaur, egubakoitza, bukatuko da.

Casting horretan parte hartzeko, interesatuak derrigorrez, 18 urtetik gora izan behar dute izena, abizena, helbidea, ikusentzunezko arloan duten esperientzia eta argazkiak bidali

Urtero, gazte askok ematen dute izena EITBko aurkezle izateko egiten diren 'casting'-etan

behar izan dituzte. EITBk jasoko dituen eskaeren artean sailkapena egingo du, eta lehenengo aukeratutakoak bigarren fasera pasatuko dira. Guztira, hiru fase egongo dira, eta behin betiko lanpostua ekainean zehaztuko dute. Aukeratutakoak EITBko datu basean sartuko dituzte, eta saio



ARTIBOIA

Arrasaten eta, orokorrean, ibarrean telebistako aurkezleen harrobi handia dago.

berriren bat egiten badute, aurkezleak eta komunikatzaileak dituzte. 2000n, 3.500 lagunek hartu zuten parte casting-ean.

LOTSABARIK/ Iñaki Juldain

"Anbulantziako gidari izan gura nuen"

IKER BARANDIARAN

Iñaki Juldain txirindularitzan fin dabil. Ikasketekin, ostera, alferrago dabilela onartu digu. Txikia zenetik abiadura oso gustuko izan du, eta bizikleta gainean ere hala ibiltzen dela diote adituek.

• Txikitik, zer izan gura zenuen?

Gidari izan gura nuen: anbulantziako gidari, suhiltzaileena... Abiadura handian ibil zitekeen gidari bat izan gura nuen. Dagoeneko iritzia aldatu dut.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Arrasaten bizi izaten, argal,

osasuntsu, kirola egiten, bikotekidearekin eta ume birekin. Eraikuntza enpresa bat gidatzea ondo legoke.

• Zein da, zeure iritziz, adin idealak?

18 urte. Esaterako, joan den asteburuan, lagunekin bakarrik eskiatzen egon naiz, eta hori bai dela bizitza maila. Askatasuna daukagu.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, batez ere, eta ikasketei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Batez ere, txirindularitzaren egoerak: jende eta ekipo falta, dopina... Horrez gain, daukagun

egoera politikoak ere arduratzen nau.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende aurrean txarto gelditzeak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Lagunak egiteko erraztasun handia daukat, baina ikasteko alfer samarra naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Hankak, txirindularitzarako erabiltzen ditudalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Aurpegiari eta gorputzari, oro har.

• Arrasaten ligatzen da?

Ahaleginduz gero, bai.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Bizikleta, autoak eta neskak
LIBURU BAT: 'Obabakoak' • FILM BAT: 'John Q' • MUSIKA TALDEA: Ozymoron eta Ramones • KIROL TALDEA: iBanesto.com



EGIN DEZAGUN
BARKOTZAK GURE
AHALEGINTZA



Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Telf.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@aedelkatea.com

BEHEKODENDATIK

Elena Martín

DONNA ERROPA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Valentziakue da, eta juen dan urtien egon zan lelengo aldiz Euskal Herrixen. Biaje haretan nobixue topau euen, eta handik bost hillebetera hamen euen bizi izeten. Egurdixarena ez dau ondo erueten, baiñe Euskal Herrixe izugarri gustetan jako. Dendari dabil, baiñe Ekonomia estudixuek egin zittuen

Amets bat?

Valentziara bueltau, eta hondartza onduen bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Ez dot amets txarrik eukitten.

Egin dozun azken biajie?

Valentziara, Gabonetan.

Txartel horixe, zeñei?

Aznarrei.

Eta gorrixer?

Hori be, Aznarrei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Ikusi doten azkena: *Wasabi / Las mujeres que hay en mi* nabil irakurten / *Morcheeba*, adibidez.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Horrekin euren egoeriek hobera egin biher badau, bai.

Ze dauketzu sobran?

Harrotasun apur bat.

Eta faltan?

Eguzki apur bat eta familixie.

Tabernetako diskotekak ala txikiteue?

Gaztetan diskoteka askotan egondakue naz; eta oin, gurago dot txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapa-tak?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondra-guetik?

Herri lasaixe dala. Adibidez, Valentzian ezin leike gabien lasai ibilli. Hamen bai.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Denpora laburre daroiet hamen bizi izeten, baiñe kotxie aparketa-ko arazuek eukitten dittut.

Eta lehendakari izengo bazi-tze?



“Euskal Herrixe oso politte da, baiñe Valentziakue izenda, eguzkixie faltan igerten dot”

Politika kontuetan ez naz bat be jantzixe.

Bizio bat?

Txokolatie.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Jente asko ezagutu dot interesantie dana.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Woody Allen.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Gael Garcia aktore mejikanue asko gustetan jat.

Telebisiñoko programa bat?

Dokumentalak gustetan jat, eta Fuentesen programie be asko gustetan jat.

“Donna dendie daukon preziuegatik azpimarratuko neuke”

Eta irratikue?

Ez dot irratirik entzuten.

Dendan lanien, gustora?

Bai. Denda barrixe da, eta neuk denpora laburre daroiet hamen lanien. Hala eta be, Ekonomia estudixuek egin dittut, eta lan ideala hori izengo litzake.

Rebajetan lan haundixekin ibilliko zarie, ala?

Haundixena pasau da.

Ze topau geike Donnan?

Daukon preziuegatik azpimarratuko neuke Donna; gauza politte daguz oso prezio onien.

Donna dendan ze erosiko zeuke zuretako ?

Batez be, konplementuek: poltsak, gerrikuek, botak...


NIREBIDAIAHURA/ Aitzol Lopez de Munain

Mexikora / 2002ko urritik abendura arte

A itzolek hilabete bi egin zituen joan den urte amaieran Ertamerikan. Lagun batekin joan zen, Ikerrekin. Bidaia egin aurretik ez zeukaten oso argi nora joan: Hondurasera joan gura zuten, baina bidaia garestiegia zen, eta Mexikorako bidea hartu zuten. Beste herrialde bat ezagutzeko asmoz abiatu ziren lagun biak Mexikora. Edozelan ere, ez zeukaten ezer zehaztu-ta: non egingo zuten lo, nondik nora ibili... Hegazkina Loiuko aireportuan hartu behar zuten, goizeko bostak aldera, eta Bilbo aldera iluntzean joan ziren, parrandatxoia egiteko asmoz: “Ondo ibili ginene, baina bidaia luze samarra egin zitzaigun”.

Lehenengo, Londreseraino joan ziren. Eta hamar orduko bidaia egin eta gero, Mexikon ziren, Mexiko Hirian. Hiriburuan ez zuten denbora luzerik egin, egun berean autobusa hartu eta Oaxakarako bidea hartu zuten-eta. Herri hartan dagoen giroa azpimarratzeko delo dio Aitzolek. Lasarteko gazte bat ezagutu zuten han. Oaxakan, besteak beste, *mezkal* edari famatua probatzeko aukera izan zuten. Hiru egun egin zituzten Oaxakan, eta, Aitzolen esanetan, hiru egun horiek non zeuden ohartarazteko balio izan zuten: “Oaxakan konturatu ginene Mexikon gauzak zelan dauden”.

Handik, kostarako bidea hartu zuten. Autobusean bidaiak gauzez egin zituzten, luzeak ziren-eta. Horrez gainera, garraio publikoa garestia iruditu zitzaien. Pazifikoan, lehenengo egunak Puerto Escondidon egin zituzten. Kostaldea lasai zegoen, jende gutxirekin, eta hango hondartzez eta senaiez gozatu ahal izan zuten. Lo, berriz, palmerekin egindako etxoletan egin zuten. Hilabete bi iraungo duen bidaiari asko egongo da kontatzeko, eta hasi baino ez gara egin. Datorren astean, gehiago.



“Oaxakako egonaldian ikasi genuen Mexikon zelan ibili”

“Garraio publikoa garestia iruditu zitzaigun”

XABIER URZELAI



Puerto Angelgo hondartzan, hangoekin futbolekin jokatzen.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

S. CARRASCAL S.L.


Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ZAHARREN ETXETIK



AITOR URIZAR

Irudian, Uribarriko elkarteko emakume eta gizon zaharrenak: Visitacion Losada eta Leon Zugasti.

Uribarriko 80 urtetik gorakoak omendu zituzten joan den astean

IKER BARANDIARAN

Joan den astean, eguenean, ospakizun berezia izan zuten Uribarriko zaharren elkartean. Urtero egiten duten moduan, aurten ere Uribarriko elkarteko 80 urtetik gorako bazkideek bazkaria izan zuten, eta, horren ondoren, elkartekoek omenaldia egin zieten auzoko aitona-amei.

Eguerdi partean, jai giroa zen nagusi Uribarriko elkartean, eta erretiratu eta haien senide asko batu ziren. Bazkarian hogeita bost erretiratu elkartu ziren: horietatik, hamahiru emakume eta hamabi gizon. Adinduek oso gustura ibili ziren, kontu-kontari, eta mahai ondoan eseri eta denbora laburrera, janaria mahai gainean zuten. Oso menu goxoa eskaini zieten: hasteko, entremesak; eta horren ondoren, zopa eta erredondoa saltsan; bukatzeko, pastela izan zuten. Eta batek baino gehiagok kopa eta puru bana ere hartu zuten.

Bazkarira joandako adinduek oso umore ona erakutsi zuten, eta

bazkalostean, musika hasi bezain pronto, batek baino gehiagok dantzaz egiteko gogoazaldu zuten: a zer-nolako trebezia erakutsi zuten batek baino gehiagok.

OMENALDI HUNKIGARRIA

Bestalde, dantzaldiaren ostean, 80 urtetik gorako adindun bakoitzari opari bana eman zioten. Eta, omenaldia ondo biribiltzeko, Jose Manuel Arriola *Dongi* arrasatear ezagun eta saltseroak bertso sorta ederra bota zien erreti-

ratuei. Ondo hartu zituzten *Dongi*-k botatakoak.

Opariak banatzeaz gain, Uribarriko zaharren elkarteko emakume zaharrenari eta gizon zaharrenari harrera berezia egin zieten. Bazkarira gerturatu zen gizon zaharrena Leon Zugasti izan zen; Leonek 93 urte ditu. Emakume zaharrena, berriz, Visitacion Lodosa izan zen; Visitacionek 92 urte ditu. Gustura ikusi genituen erretiratuak, datorren urtean errepikatzeke gogoarekin.



LABUR

Toki Argi zaharren elkarteak Abadiñoko San Blas azokara irteera antolatu du

Toki Argi zaharren elkarteak Abadiñoko San Blas azokara irteera antolatu du. Otsailaren 3an joango dira (astelehena), hau da, San Blas egunean. Goizean, azoka ikusiko dute eta horren ondoren, Gatikako jatetxe batera bazkaltzera joango dira. Bazkalostean, dantzaldia izango dute. Dagoeneko zabalik dago irteera horretara joateko izenematea. 20 euro ordaindu behar dira.

Arrasateko zaharren elkarteek bazkideen kuotak bost eurotan jarri berri dituzte

Arrasateko zaharren elkarteek -Abaroa, Toki Argi, Uribarri eta Musakola- bazkideen kuotak bost eurotan jarri dituzte. Abaroari dagokionez, kuotak ordaintzeko epea otsailaren 3an hasiko da eta apirilaren 30era arte iraungo du. Kuota hori ordaintzen ez dutenek ezin izango dituzte Abaroa zaharren elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili.



Toki Argiko Karta-joko Txapelketa

Santa Marinako Toki Argi elkarteak Karta-joko Txapelketa antolatu zuen, eta joan den egubakoitzean, sari banaketa egin zuten. Urtero moduan, aurten ere Santa Marinako Egipe elkarte gastronomikoan egin zuten sari banaketa, eta Karta-joko Txapelketako parte-hartzaile guztiek (50 bat) afaria izan zuten.

Briskan, Felisa Badiolak eta Felisa Oroizek osatutako bikotea nagusitu zen (argazkian ageri dira); tutean, Juan Zabaletak eta Esther Albizuk eskuratu zuten txapela; cuatrolan, Evaristo Barreras eta Jaime Nieto nagusitu ziren; eta azkenik, musean, Manuel Uriarte eta Jose Carrero. Zorionak, guztie! /I.B.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta




EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zelan deitzen da Santa Barbara parkeko goiko biribilunea?
Arrastoa: abesbatza batek izen bera dauka.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN**
ARRATSALDERAKO ARRASATE PRESSERA!

Orlando tomate frijitua
410 g. + %20 doan

0,48€ 80pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIJE LAZPITArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Marije!
Galderen erantzun zuzena:
Iturripe.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasatek historiaurrean zituen ezaugarriak

ARRASATE PRESS

Arrasaten azaldu ziren lehenengo aztarnak nahiz eta gutxi izan Erdi-Paleolito garaikoak dira, hau da, orain dela 80.000 urtekoak. Ondorengo garaikoak, hots, Goi-Paleolito aurrerakoak, ugariagoak dira.

Arrasaten, Lezetxikiko kobazuloan, hain zuzen ere, Neanderthalgo gizakiaren aztarnak aurkitu zituzten: letagin bi eta besondo bat. Neanderthalen lehen aztarnak Alemanian aurkitu zituzten, eta, azterketek diotenez, nomadak ziren. Hauek dira Neanderthalgo gizakiaren ezaugarriak: metro bat eta berrogei zentimetro eta metro bat eta berrogeita hamar zentimetro bitarteko luzera; zango motzak eta okertuak; besoak, berriz, luzeak; ehizan egiteko tresnak egiten trebeak ziren; haitzuloetan bizi ziren.

Orain arte Neanderthalen ganean egin dugu berba, baina Cro-Magnongo gizakia ere bizi izan zen Arrasaten. Gizaki haiek Goi-Paleolito garaian bizi izan ziren, eta Frantzia azaldu ziren lehen aztarnak. Esan

“Arrasateko Lezetxikiko koban Neanderthalgo gizakiaren aztarnak aurkitu zituzten”

“Arrasaten ez dago monumentu megalitikorik; bai, ordea, haitzulo garrantzitsuak”

bezala, Arrasaten ere bizi izan ziren, baina oraindik ez dute gizaki haren aztarnarik aurkitu; bai, osteria haien erremintak: Cro-Magnongo gizakiek arrantzan egiten zuten; hezurrezko erremintak egiten zituzten. Horrez gain, haitzuloetan margoak egiten zituzten.

Gipuzkoako herrietan monumentu megalitiko bat baino gehiago dago, baina



'ARRASATE GURE HERRIA'

Labeko koban aurkitutako errinozeronte artiletsuaren baraila.

Arrasaten ez dago horrelakorik. Hala ere, beste era bateko aberastasuna dugu: haitzuloak. Euskal Herriko haitzulo garrantzitsuenetakoak ditugu Arrasaten. Gaurkoan, Labeko

kobaren ganean egingo dugu berba. Labeko koba San Andresen zegoen, Uribealgo lantegiaren atzeko aldean. Egun, desagertuta dago, saihesbidea pasatzen da-eta

handik. Arrasateko Espeleologia Taldeak 1972an egin zituen lehen indusketa lanak. Eta 1987an eta 1988an, Aranzadi Zientzia Elkarteak egin zituen indusketa lanak.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urtarrilaren 24a / 50. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02



UDALEKO ZERBITZU TEKNIKOAK

Mazmela inguruan luizia izan zen abenduko euriteen ondorioz; oraindik ez dute konpondu, eta oso gaitza da konpontzea.

Herriko zenbait errepede konponketa beharrean dira

UBANE MADERA

Aramaioko zenbait errepede, bide eta pista konpondu beharra dago; bereziki, abenduko euriteen ostean. Jeneralean, Udal Zerbitzu Teknikoak ardura-zen dira holakoekin. Haiek eman digute egoeraren berri.

Zerbitzu Teknikoko langileek jakinarazi digutenez, Mazmelatik Pagoluzetara (Kurtzeta aldera) doan pistaren zati bat jausi egin zen abenduko euriteen ondorioz. Zati handia erori zen, eta gaitza izango da konpontzea, batez ere, diru dezente behar delako. Orain, dirua nondik lortu aztertzen dabil-tza Aramaioko Udalean.

Bestalde, Andra Maritik Kurtzeagara doan pistaren ere luizia izan zen abenduan; Etxaguenera doan errepedetik jausi zen lurra. Eta dagoeneko garbitu du Udalak pista zati hura. Baina Etxaguenera doan errepedea konpontzea Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta oraindik ez du ezer egin. Aramaioko Udalak konponketa beharra dagoela gogorarazi dio Dipu-

Suñara doan bidean arrakala agertu dela jakinarazi digute Zerbitzu Teknikoek

tazioari, bereziki, handik pinuz betetako kamioi dezente pasatzen direlako; edozelan ere, oraindik ez du erantzunik jaso.

Zabolatik Untzillara doan bide-arengatik ere kexatu dira zenbait herritar. Zuloak daude, eta nahiz eta behin baino gehiagotan estali izan dituzten, zoladura altxatu egin da eta lehenetan geratzen da bidea. Hortaz, berriro konpondu beharko dute. Horrekin batera, Induspe Goikoren eta Zubietaren arteko bidea konpontzeko eskakera ere egin dituzte auzotarrek.

Errepideekin bukatzeko, Suñara doan bidean arrakala agertu dela ere jakinarazi digute Zerbi-

tzu Teknikoek. Errepide hura Foru Aldundiaren ardurapean dago, eta hark konpondu beharko du. Dena dela, Aramaioko Zerbitzu Teknikoko langileek esan dute laster konpondu ezean txarrerara egingo duela, batez ere, euri-urak arrakalatik sartzen badira.

ERREPEDEETAKO AREKAK

Bestalde, areekin ere arazoak daude Aramaioko zenbait errepedetan. Herritar batzuk kexatu egin dira horregatik. Kontua da, udal aurrekontuan egon den diru murrizketa dela-eta, Aramaioko Udalarri dagokion bideetako areken garbiketa kendu egin zutela. Horren ondorioz, gaur egun, luizia izan diren errepedeetako arekak oso txarto daude.

Hori bai, bukatzeko, esan beharra dago elurrari aurre egiteko gertu daudela aramaiorrak. Orain dela pare bat urte, elurra kentzeko hortzak erosi zituen Udalak (traktoreei ipintzen zaizkie); eta herriko bost lagunek gertu dituzte traktoreak, haiei hortzak ipini eta behar direnean erabiltzeko.

Eguaztenean, osoko bilkura nahaspilatsua

UBANE MADERA

Joan den astean iragarritako moduan, gai istilutsua landu zuen udalbatzarrak eguazteneko osoko bilkuran: Garzón epaileak Udalarri egindako errekerimendua. Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoen, eta ez dugu jakiterik zertan geratu den.

Kontuak kontu, eta Garzón epailearen errekerimenduari lotuta, Herri Batasuna, Euskal Herriarrok eta Batasuna taldeetako zinegotzi izandako guztiek eguazteneko batzarrerara joateko asmoa zuten; batetik, Udalak eskaera horrekin egindakoaren berri jakiteko; eta, bestetik, euren jarrera zein den azaltzeko.

Horrekin batera, Iñaki Nafarrate alkateak Garzónen errekerimenduari erantzuteko joan den astean egindako lanaren berri ere eman behar zion udalbatzarrari. Eta pentsatzekoa da gainerako zinegotziek gai horrekin duten jarrera ere azalduko zutela eguazteneko batzarrean.

AURREKONTUA

Bestalde, iragarri genuen moduan, datorren urterako udal aurre-

kontua ere aztergai izan zuen udalbatzarrak. Oro har, iazkoa baino kopuru txikiagoa du Aramaioko Udalak aurten gastatzeko. Bere ziki, azken urteotan lan handiak egiteko diru asko gastatu dutela kontu Aramaion. Dena dela, datorren astean emango dugu aurrekontuko partida garrantzitsuenen berri.


BESTELAKOAK

Eta, bigarren mailan bada ere, bestelako gaiak ere landu zituzten zinegotziek bilkuran. Guztira, beste bost gai; tartean, San Martin parrokiako parrokoak parroki-hura konpondu behar dutela eta Udalarri eskatutako laguntzaren gainean erabaki behar zuten zinegotziek.

Horrez gainera, Besaideko basoa berritzeko akordioa ere berbagai izan zuten batzarrean. Eta aurtengo Erretiratuen Egunerako eta Emakumearen VII. Aste Kulturalerako Arabako Foru Aldundiari dirulaguntzak eskatzeko aukera ere aztertu zuten.

Bukatzeko, eta Udaleko kontu-hartzailea bajaz dagoela eta haren lanpostua zelan bete eta erabakitzeke zuten zinegotziek.

Dena dela, esandako moduan datorren astean egingo dugu osoko bilkuraren laburpena.



Denera, zazpi gai landu zituen udalbatzarrak eguaztenean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
07:50	07:15	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bilzilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZINEA
Oraingo domekan, *El planeta de los simios* filma emango dute kultura etxean. Betiko moduan, 17:00etan da hitzordua.

IPIUIN KONTALARIA
Astelehenean, hilaren 20an, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria Udal Liburutegira joatekoa zen, umeei ipuinak kontatzera. Baina, zoritxarrez, istripua izan zuen eta ezin izan zen Aramaiora etorri.


PROBATU DUTE SAGARDOA
Txalapartariak egindako deiari kasu eginez, Iturrietako kupeletara gerturatu eta aurtengo sagardoa probatu zuten zenbaitek joan den eguaztenean (hilak 15), iluntzean. Jai txikia egin zuten Aramaioko sagardotegikoek sagardoa-aren estreinaldirako. Gazte, heldu zein adindun, denetarik egon zen sagardotegian. Jakina, edateko sagardoa izan zuten, barra-barra; eta hari laguntzen, patata-tortilla, txorizoa eta hirugiharra. Eta giroa alaitzen, besteak beste, sagardotegiko ugazaba Benito Pecina ibili zen.

GIZARTEA

Aramaioko Presoen Aldeko Taldeak lanean segitzeko asmo sendoa du

Aramaioko Presoen Aldeko Taldeak V. Buletina argitaratu berri du. Besteak beste, Aramaion telefonoz egindako inkesta baten berri eman dute buletinean. Horren arabera, Aramaioko herritarren %76 "zazpi lurralde osatutako Euskal Herri askearen" aldekoak dira; eta %24, kontrakoak. Horrez gain, orain arteko esperientzia ikusi eta gero (urte bi ditu taldeak), talde horrek atera duen ondorioa da Aramaioko gazteriak ez duela aktiboki parte hartzen eurek antolatutako ekintzetan.

Edozelan ere, taldeak aurrera egingo duela gaineratu digu taldeko ordezkariak. Horrela, helburuak hauek dira: "Estatuaren errepresioak salatzea: torturak, dispertsioa, adierazpen askatasun eza... eta, oro har, herritarrak Euskal Herrian dagoen egoerarekin kontzientzia daitezela eta Euskal Herriko arazoak kontura daitezela". Eta, era berean, helburuon barruan presoei idaztea eta bis-



Aramaioko Presoen Taldeak V. Buletina kaleratu zuen Gabonetan.


taldik egitea ere sartu dute. Herritarren erantzunaren gainean, berriz, diote Gabonetan, jaetan eta horrelakoetan sentsibilizazio handia erakusten dutela; ez, ordea, urte osoan. Horrela, bada, herritarrak parte-hartze zuzenagoa izatera animatu gura dituzte, "presoen eta gure herriaren duintasuna jokoan dagoelako".

GIZARTEA

Dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

Gizarte etxeak gaitzeko, kontserbatzeko eta hornitzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dago. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen ditu laguntza horiek, eta erakunde publikoek eta elkarteek eska ditzakete. Horrela, bada, erakunde publikoek urtarrilaren 31ra arte dute eskaerak egiteko. Eta elkarteek, berriz, otsailaren 15era arte.

Esan bezala, gizarte erabilerrako instalazioak gaitu, kontserbatu eta hornitzeko dirulaguntzak dira. Horren barruan, igeltserotza lanak egiteko, elektritzitate lanak egiteko, berogailuarendako, teiltua konpontzeko... eta horrelakoetarako eskatu ahal dira laguntzak. Baita mahaiak, armairuak, apalak... erosteko ere. Bestalde, ezin izango da laguntzarik eskatu lanetarako proiektuak egiteko, ezta kirol edo erlijio aretoak, museoak, txokoak, kontzejuaren aretoak edo udaletxeak egokitzeko, konpontzeko eta hornitzeko ere, instalazio horiek gizarte erabilerarik ez badute, behintzat.



Aramaioko mapa aurkeztu zuten egileetako batzuek

UBANE MADERA

Joan den eguenean (hilak 16), **Aramaioko Mapa Toponimikoa aurkeztu zuten. Aurkezpenean, besteak beste, maparen egileetako bi izan ziren: Imanol Goikoetxea geografoa eta Patxi Gale Euskaltzaindiko kidea. Mapa egiteko orduan laguntza handia izan dutela esan zuten.**

Baserriz baserri egindako lanaren emaitza da mapa hori. Eta herritarren lekukotasun zuzena lortzea izan da helburua. Aurkezpen ekitaldian esandakoaren arabera, egileek ezuste handia hartu dute Aramaion; izan ere, 40 urteko aramaiorrek ere erabiltzen dituzte antzinako toponimoak, eta hori ez da oso arrunta izaten. Imanol Goikoetxea geo-

grafoak esan zuenez, 2.000 toponimo inguru aurkitu dituzte Aramaion. Horietatik erdiak-edo, fisikoki lokalizatu dituzte, eta 700 bat lokalizatzeko daude oraindik. Toponimoak lortzeko, ahozko testigantzekin batera, Udaleko artxiboa ere erabili dute, baita Gabiñe Insaustiren toponimiarren gaineko liburua ere. Horrela, hitzaren forma zaharra eta ahozko lekukotasuna ikusi eta gero, Euskaltzaindiari bidali diote, hark euskararen arauen arabera egoki dezan. Horren harira, Euskaltzaindiko ordezkari Patxi Galek esan zuen hitzaren forma guztiak aztertu ostean erabili behar den idatzizko forma erabaki dutela. Eta askotan, idatzizko forma eta ahozkoa edo antzinakoa oso desberdinak direla; esaterako, *Suñia - Zurinao* bikotea.

LABUR

Areto futboleko Bañera talde aramaiarra lehenengoa da sailkapenean

Bañera elkarteak dituen hiru taldeetako bat oso fin dabil aurtan. Seigarren jardunaldia jokatu dute, eta oraindik ere hortxe daude, lehenengo postuan, tinko eta gogor. Gainera, taldearen emaitzak ere ezin hobekak dira: partiduko guztiak irabazi dituzte eta 71 gol sartu dituzte; batez beste, 11 gol partiduko. Edozelan ere, oraindik asteburuko partidua oso garrantzitsua da aramaiorrendako; izan ere, sailkapenean bigarren dagoen taldearen kontra jokatu beharko dute. Bihar (zapatua) izango da partidua, Gasteizko Hegoalde kiroldegian, 12:00etan, eta Olabide taldea izango dute aurrez aurre.

Gainerako bi taldeak, berriz, antzera samar dabilta, sailkapenari begiratuz gero: azkenaurreko postuan biak ere. Edozelan ere, oraindik badute gora egiteko astia; hortaz, ikusi behar.

Bukatzeko, esan beharra dago nesken talderako entrenatzailer behar dutela. Izan ere, orain arteko entrenatzaileak utzi egin behar izan du lan hori. Hortaz, interesa duenak dei dezala Aramaioko kiroldegira. Bien bitartean, Jorge Núñez eta Alfonso del Campo arduratuko dira nesken taldearekin.

SAILKAPENA

AZKENEKO PARTIDUETAKO EMAITZAK KONTUAN HARTU BARIK			GAZTE MAILA, MUTILAK		
Taldea	Puntuak	Jokatutakoak	Taldea	Puntuak	Jokatutako parti.
KADETE MAILA, MUTILAK			Atenea	14	7
Aramaioko	15	5	Agur O.L.	12	6
Olabide	13	5	El Pilar Maria.	12	7
Baro Calo	7	4	Urgatzi	10	7
La Milagrosa	6	3	Izarra Gofiri	7	5
El Campillo	6	5	Bañera	7	8
Aurrera	5	4	Aurrera	4	6
Laudio I.K.	3	1			
Lan eta Jolas	2	5			
Menesianos	0	4			
Jesus Obrero	-1	4			

KADETE MAILA, NESKAK			HURRENGO PARTIDUAK		
Taldea	Puntuak	Jokatutakoak	Gazte mailako mutilek atsedena dute oraingo asteburuan. Kadete mailako neskek, berriz, Agurainen jokatuko dute Partidua 11:30ean izango da, Ordoñana kiroldegian. Atletico Santa Maria taldea izango dute aurrez aurre. Eta kadete mailako mutilak Gasteizen izango dira, 12:00etan dute partidua, Olabide taldearen kontra.		
At. Sta. Maria	9	3			
Virgen Niña	9	4			
Lan eta Jolas	6	3			
Aurrera	6	3			
Jesus Obrero	3	3			
Aramaioko	0	2			
Ekialde	0	4			

ERRETRATUZHARRA

1934ko
urriaren 5eko
erreboltakoa

Eibartik iritsi zen abisua, 01:00etan. Aurretik prestatuta zegoen moduan, talde bat indar iraultzaileetako partaideak banan-banan eta etxez etxe esnatzen joan zen; horrela, taldetan batu eta herriaz jabetzen hasi ziren 03:00ak aldera. Gauzainak eta mikeleteak, aguazilak eta lantegi zaintzaileak euren etxeetan edo lantokietan harrapatu zituzten. Armak kendu, atxilotu eta Herri Etxera eraman zituzten.

Trenbidea hartu zuten, armak eta jakiak hartu zituzten herriko zenbait lekutan, Aurrezki Kutxaren telefono zentrala eta mikeleteen kuarteltxoa ere hartu zituzten eta, azkenik, patruila armatuak ipini zituzten herriko leku estrategikoetan. 05:00etarako, Arrasate ia osoa hartuta zuten, Guardia Zibilaren kuartela falta zitzaien. Baina geroago hura ere hartu zuten.

Errebolta haren gidaria Iraultza Batzordea izan zen; talde hura arduratu zen bandoak idazteaz eta hark hartu zuen Arrasateko agintaritza.

Arrasaten argazkian ageri diren



lagunek osatu zuten Iraultza Batzordea. Argazkia Tours-en (Frantzia) atera zuten, erbestean. Honako hauek agertzen dira goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Pedro Ruiz de Alegria Balantzategi, Bitor Berezibar Ormazabal, Kose Agirregomezkorta Etxebarria, Zelestino Uriarte Bedia, eta

azkena ezezaguna da (Frantziako muga arrasatearrekin batera pasatu zuen Hernaniko edo Donostiako iraultzaileen bat da; taldearen adiskide egin zen eta eurekin geratu zen erbestealdian).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara, honakoak daude: Frantzisko Azkonga Arana, Ismael Díez Fernán-

dez, Jaime Uriarte Zestona, Guillermo Lasagabaster Gorosabel eta Markos Vitoria Goitia.

Argazkia: 'Arrasate 1936, belaunaldi etena'
Informazioa: Oktubre taldea
Urtea: 1934

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Andres,
San Josepetik
ikusita

Argazki orokorretan igartzen da gauzak zenbat aldatzen diren. Ondoan dituzuen argazkiak San Andreskoak dira, baina Udalatx atzean ez balego, ez litzateke erraza izango nongo argazkiak diren asmatzea. Holako erreferentziak erabakigarriak izaten dira leku baten kokapena zehazteko. Argazkia ateratzeko San Josepera joan gara, eta asmatu egin dugu.



1965 San Andresko dorreak egin barik zeuden garai hartan, eta argazkiaren eskuinaldean ez zeuden gaur egun dauden enpresak.



2003 San Andresen atzeko aldean Erguingo etxeak azaltzen dira. Ezkerreko argazkian ez dituzte ikusiko, egin barik zeuden-eta.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Aretz

Taberna

Markole 5


943 79 14 67

ARETXABALET

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

GATZA ETA
BERAKATZA...

Gertuko sukaldea,
gertu-gertutik!

Egunero,
13:30ean, 16:00ean,
19:45ean eta 21:45ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko
duzu!



Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE

Tel./Faxe.: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea

Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Giltzak



- Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak
- Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Enpresa baimendua: berogailu eta gas instalatzea

Galdarak aldatzea

Erreteren mantentze-lanak

Obra integralak

Zaharberritzeak

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63